EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Servicios*

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

# BIZTANLERIA AKTIBOAREN KUALIFIKAZIO INKESTA - 2015

*Emaitza nagusiak*
*2016ko uztailean*

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa*

# SARRERA

Biztanleria Aktiboaren Kualifikazio Inkestak (BAKI), Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, hiru alderdi aztertzen ditu, biztanleria aktiboaren kualifikazio-maila zehazteko: prestakuntza arautuaren maila; osagarrizko prestakuntza-jarduerak (arautu gabeko prestakuntzaren jarduerak eta hizkuntzak barnean hartuta); eta lan-esperientzia.

Lan honetan, EAEko biztanleria potentzialki aktiboa aztertu da. Kolektibo horren barruan bi talde sartzen dira. Alde batetik, biztanleria aktiboa, zentzurik zabalenean; hau da, ia-langabe direnen kategoria barnean hartuta. Horrek esan nahi du, LANE eta EUROSTAT erakundeen definizioen arabera landuntzat eta langabetzat hartzen diren pertsonez gain, honako hauek ere hartu direla kontuan BAKIn aztertutako biztanleria aktiboan: zentzu hertsian lanerako prest egon ez arren, hots, 15 eguneko epean lanean hasteko prest, edo langabetzat jotzeko gutxieneko gestioak egin ez arren, lana bilatzen ari direnak[1].

Biztanleria potentzialki aktiboak, bestalde, lanerako egoera potentzialean dauden pertsonak (gizonezko eta emakumezko aktibo potentzialak) biltzen ditu, eta talde horren azterketa BAKIn jasotzen da 2003ko ediziotik aurrera. Aktibo potentzialak dira une horretan lan egiten ez duten lagunak, eta lanik bilatzen ari ez direnak, baina beren baldintza pertsonaletara eta ezaugarrietara egokitutako lan-eskaintzaren bat jasoz gero, hurrengo hiru hilabeteetan lan hori onartzeko aukera aztertuko luketenak.

2015. urtean, erreferentziako kolektiboa 1.144.105 pertsonakoa izan da EAEn. Kopuru horri aktibo potentzialak kenduz gero (31.329 pertsona), biztanleria aktiboa, zentzurik zabalenean, ia-langabeak barnean hartuta, 1.112.776 pertsonakoa da.

[1] Datuen aurkezpena sinplifikatzeko, ia langabe direnen kolektiboa langabeen kolektiboaren parekotzat hartu da BAKI honetan. Nahasketarik egon ez dadin, ordea, ez-okupazio kontzeptua erabiltzen da, langabezia erabili beharrean.

## PRESTAKUNTZA ARAUTUAREN MAILA

BAKIn, egindako ikasketa-mailarik handiena aipatzen da prestakuntza arautuaren mailan, eta titulu ofizialik handiena hartzen da kontuan. Hauek dira azpimarratu beharreko emaitza nagusiak:

**1. Bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dira nagusi biztanleria aktiboaren artean**

BAKI inkesta egiten denetik lehenengo aldiz, hirugarren mailako ikasketak edo bigarren mailako goi-mailako lanbide-ikasketak dituzten pertsonak EAEko biztanleria aktiboaren % 51,5 izan dira 2015ean, biztanleria aktibo osoko multzorik handiena, alegia[2]. Kolektibo horren barruan, % 21ek goi-mailako lanbide-heziketako tituluren bat dauka, eta % 30,4k unibertsitate-tituluren bat (% 10,5ek hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak, eta % 19,9k, hirugarren mailako goi-mailako ikasketak). Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleak (guztizkoaren % 12,8) kontuan hartzen baditugu, berriz, bigarren mailako ikasketak, goi-mailako lanbide-heziketakoak edo hirugarren mailakoak dituztenak biztanleria aktiboaren ia bi heren dira; hau da, % 64,2 guztira. Erdi-mailako lanbide-heziketako titulua dutenak (guztizkoaren % 11,9) gehituz gero, proportzio hori % 76,1era igotzen da. Beraz, EAEko biztanleria aktiboaren hiru laurdenek baino zertxobait gehiagok lehen mailako ikasketak baino maila handiagoko nolabaiteko prestakuntza arautua dute 2015ean.

Aurreko datuek adierazten duten moduan, prestakuntza-mailarik baxuenek pisu gutxi dute Euskadin. Analfabetoak eta ikasketarik gabeko pertsonak biztanleria aktiboaren % 0,9 baino ez dira. Ikasketak dituzten eta Lehen Hezkuntza bukatzea lortu ez duten pertsonak % 2,7 dira, eta lehen mailako ikasketak bukatu dituztenak, berriz, biztanleria aktiboaren % 20,2.

Aktibo potentzialen multzoak, 2015ean, ezaugarri du bere kualifikazio-maila pertsona aktiboek dutenetik nahiko hurbil egotea. Lehen Mailako ikasketetan maila gorena zuten pertsonak nagusi ziren 2011n, baina 2015ean guztizkoaren % 28,4 dira. Erdi-mailako LHko titulazioa dauka % 10,4k, eta bigarren mailako titulazio ez-profesionala, berriz, % 16,4k. Ikasketa kualifikatuak (hirugarren mailakoak edo goi-mailako LHkoak) dituztenak, azkenik, % 44,7 dira.

---

[2] Unibertsitateko eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketak ikasketa kualifikatutzat hartzen dira BAKIn, betiere pentsatuta maila horiek prestakuntza eraginkorra eta lanbide-espezializazioa bermatzen dutela. Lanbide-espezializazio horren hasierako fasetzat jotzen dira bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak eta erdi-mailako Lanbide Heziketa, inkestaren eremuan; beraz, ez dira ikasketa kualifikatutzat hartzen (baina prestakuntza-maila jakin bat eskatzen duten ikasketak direla aitortzen da).

## 2. Gaur egungo prestakuntza-egoera 90eko hamarkadaren amaierakoa baino askoz aurreratuago dago

EAEko biztanleria aktiboan ikasketa-mailen arabera egon diren aldaketen epe luzeko azterketak erakusten du askoz prestakuntza-egitura kualifikatuago baterantz ari garela aurrera egiten.

Alde batetik, prestakuntza-maila baxuena duten aktiboen bolumenak behera egin du: Hartara, lehen mailako ikasketarik gabeko biztanle kopuruak % 50 egin du behera 1999 eta 2011 artean. Hain nabarmena ez izan arren, adierazgarria da, halaber, lehen mailako ikasketak edo bukatu gabeko bigarren mailakoak dituzten pertsona aktiboen beherakada (–% 20,1). Bestalde, 1999tik 2015era bitartean, % 35,1 igo da erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten pertsonen kopurua, eta % 5,2, berriz, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenena.

Nolanahi ere, igoerarik handiena ikasketa kualifikatuak dituzten pertsona aktiboena izan da. Horrenbestez, biztanleria aktiboan % 45,2 handitu da 1999-2011 tartean goi-mailako LHko titulazioa edo hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua. Handitze nabarmenena hirugarren mailako ikasketen titulazioa duten pertsonei dagokie, bereziki goi-mailako ikasketak dituztenei (% 31,7ren ordez % 68,2 erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenen kasuan; eta % 34,7 goi-mailako LHko ikasketak dituztenen artean).

Aurreko datuek erakusten dutenez, zenbat eta handiagoa izan pertsona aktiboen prestakuntza-maila, orduan eta bilakaera hobea –edo ez horren txarra– du haien bolumenak. Era berean, argi uzten dute zer-nolako aldea dagoen LHko ikasketak edo unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen –haien kopurua handitu egin baita 1999-2015 aldian– eta ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, azken horiei dagokienez beherakada deigarria gertatu baita aipatutako aldian.

Azken talde horri gehitzen zaio, 2011 eta 2015 artean, bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituzten pertsonen kolektiboa, aldian -% 4,5 txikitu baita; horren parean, nabarmen handitu da (+% 95,7) horrelako ikasketak ez dituztela amaitu esaten duten pertsona aktiboen kopurua. Izan ere, 1999. urteko % 23,6tik 2011. urteko % 10,4ra etengabe jaitsi ondoren, 2015ean % 19,2raino handitu da bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak hasi ondoren amaitu ez dituen biztanleria aktiboaren proportzioa.

Joera oro har positibo horien ondorioz, 1999-2015 aldian biztanleria aktiboaren banaketa errotik aldatu da. Eta hala, 1999an, biztanle horien % 36,6k gehienez ere lehen mailako ikasketak eginak zituen (erdi-mailako LHrik edo bigarren mailako ikasketa finkaturik gabe). Kopuru hori ikasketa kualifikatuak (goi-mailako LHko edo unibertsitateko ikasketak) zituzten pertsonen % 39,8aren azpitik zegoen, baina 3,2 puntura baino ez, eta gainerako % 23,5a

LHko erdi-mailako ikasketak edo bigarren mailako ez-profesionalak zituzten pertsonei zegokien.

2015ean, ikasketa kualifikatuak zituzten pertsonen pisua % 51,5era iritsi zen, eta gehiengoduna bihurtu zen lehen aldiz. Aipatutako proportzio hori 27,6 puntu dago lehen-hezkuntzako prestakuntza-maila gorena duten pertsonei dagokien % 23,9tik. Egonkorragoa da, ordea, erdi-mailako LHko ikasketak edo bigarren mailako ez-profesionalak dituzten tituludunen tarteko kolektiboa (% 24,7, gorantz egiten ari dela 2007. urteko gutxieneko % 21,1etik).

## 3. 2011 eta 2015 artean berriz abiatu da prestakuntza-esparruan 1999 eta 2007 artean izandako hobekuntza-prozesua, eta 2007 eta 2011 arteko egonkortze-prozesua gainditu da

Biztanleria aktiboaren barruko banaketan ikasketa-mailaren arabera ikusi ahal izan dugun aldaketa nabarmen hori 1999tik 2007ra bitartean gertatu zen EAEn, batez ere 2003-2007 laurtekoan. 2007-2011 laurtekoan, berriz, araututako prestakuntza-mailaren egonkortze-prozesu argia gertatzen zen. 2011 eta 2015 artean, azkenik, EAEko biztanleria aktiboaren prestakuntza hobetzeko prozesua berrabiatu da.

Eta dinamika hori oso ongi ikusten da Heziketa Arautuaren Indize Sintetikoaren (HAIS) bilakaerari erreparatuz gero[3]. Hartara, ikusten da biztanle aktiboen artean HAIS indizea 1999. urteko 3,34tik 2003. urteko 3,41era handitu zela, eta aurrerapauso handia eman zuela 2007an, 3,64raino iritsi zelako. 2011n, adierazlea egonkortu egin zen, jaisteko oso joera txiki batekin, 3,63 izan baitzen.

2015ean, HAIS indizeak gora egin du, 1999tik bigarren igoera handiena izan baitu laurtekotan (+0,12 puntu 2011ren aldean; +0,23, ordea, 2003 eta 2007 artean). 2015ean, baliorik handiena lortu da adierazlean, 3,75ekoa.

### 3.1. Berriz ere gora egin du goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituen biztanleria aktiboak

2007 eta 2011 artean, hirugarren mailako goi-ikasketak zituzten pertsonen kopurua egonkortu izana zen EAEko biztanleria aktiboaren prestakuntza arautuaren batez besteko

---

[3] Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoa honako formula hau aplikatuta kalkulatzen da BAKIn gaur egun:
(Ax0 + IGx1 + LBx1,5 + Lx2 + BBx2 + LHIx3 + LHIIx4 + Bx3 + HEx5 + HGx6)) / Erreferentziazko biztanleria
Non: A: Alfabetatu gabeak baitira; IG: Ikasketarik Gabe; LB: Lehen mailakoak bukatu gabe; L: Lehen mailakoak; BB: Bigarren mailakoak bukatu gabe; LHI: LH I/Erdi-maila; B: Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak; LHII: LH II/Goi-maila; ERD: Erdi-mailako hirugarren mailakoak; GOI: Goi-mailako hirugarren mailakoak.

mailan izandako etengabeko aurrerapenaren etena azaltzeko faktore nagusia. Prestakuntza-maila hori zuen biztanleria aktiboa % 10,8 handitu zen 1999 eta 2003 artean, eta % 25,6, berriz, 2003 eta 2007 artean, baina laurteko hartan igoera % 1 baino ez zen izan. Kopuru absolutuak kontuan hartuta, 1999ko 131.615 pertsonako kopurutik 2007ko 183.196 pertsonako kopurura igo ondoren, kopurua 185.075era baino ez zen igo 2011n[4].

2011 eta 2015 artean, goi-mailako ikasketak zituzten biztanleen goranzko bilakaera berrabiatu zen, eta 2015ean, tituludunak 221.358 izan ziren, 2011n baino % 19,6 gehiago. 2003-2007 laurtekoan izandakoa soilik da aipatu gehikuntza-maila hori baino handiagoa, ordukoa % 25,6koa izan baitzen. Horrekin batera, kolektibo horrek biztanleria aktiboan duen pisua handitzeko joera berreskuratu da. 1999. urteko % 13,3tik 2007. urteko % 18,1era aldatu ondoren, ehunekorik handiena lortu da 2015ean, % 19,9, argi eta garbi 2011ko % 16,6ren gainetik.

Hala ere, bilakaera horrek lotura du unibertsitate-ereduaren aldaketarekin, orain iraupen txikiagoko goi-mailako ikasketak baitaude, hirugarren mailako erdi-ikasketen eginkizuna murriztuta. Izan ere, ikasketa-maila hori duten pertsonen kopurua % 11,3 murriztu da 2011 eta 2015 artean. Oro har, hirugarren mailako ikasketak dituzten biztanleen kopurua % 6,8 handitu zen 2011 eta 2015 artean, baina beheranzko ildoak bere horretan jarraitzen du hazkunde-erritmoetan, 2007-2011 laurtekoko % 7,5a eta 2003-2007ko % 29,2a kontuan hartuta.

Bilakaera, ordea, alderatuta, aldekoa da goi-mailako ikasketak dituzten pertsonentzat. Gaur egun, biztanleria aktiboaren % 30,4 dira. Zifra hori 1999ko eta 2003ko % 22-23ko mailen oso gainetik dago, bai eta 2007ko % 29,1en eta 2011ko % 28,4ren gainetik ere.

### 3.2. 2007 eta 2011 artean izandako gorakada handiaren ondoren, behera egin du ikasketa kualifikaturik gabeko biztanle aktiboen kopuruak

2007-2011 aldian biztanle aktiboen kopuruan izandako emendatze handiaren zati garrantzitsu bat ikasketa kualifikaturik gabeko biztanleekin lotzen zen. Baina egoera horretan zeuden pertsonen kopurua etengabe jaitsi zen 1999tik 2007ra arte, 596.139ko kopurutik 516.642kora; geroago, ordea, kopuruak gora egin zuen 2011n 567.929 izan arte. 2007ko gutxieneko kopuruaren gainetik jarraitu arren, 2015ekoak, ikasketa kualifikaturik gabeko pertsona aktiboak 540.251 baitira, esan nahi du berriz heldu zaiola 2007ra arte izandako beheranzko ildoari.

---

[4] Ikusitako egonkortzearen jatorriari erreparatzean, bazirudien besteak beste bi faktore nagusik zutela eraginik handiena: a) prestakuntza-maila handia zuten talde batzuk irten egin izana EAEko lan-merkatutik, dela emigrazioagatik, dela prestakuntzan birziklatzeko premiagatik, dela erretiroagatik, hori aurreratua izan zein ez, eta b) jaiotza-tasan izandako beherakadak eragina izana ikasketa kualifikatuak egiteko aukera duten biztanle-talde berrien bolumenean.

Testuinguru horretan, badago beste datu azpimarragarri bat: 2007 eta 2011 artean goranzko joera nabaritu zen, baina 2011 eta 2015 artean berriz heldu zaio biztanle aktiboen kopuruaren beheranzko ildoari, lehen ikasketen maila handienarekin. Egoera horretan, gizonezko eta emakumezko aktiboen kopurua 1999ko 362.908tik 2007ko 303.134ra jaitsi zen, 2001ean 311.902ra iritsi ondoren. 2015ean, pertsona horien kopurua 265.710era murrizten zen, hau da, maila txikienera BAKI egiten denetik.

Aurreko kolektiboaren barruan, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua ere jaitsi zen: 2011n 265.710 izan ziren, eta 2015ean, berriz, 40.519. Hala ere, kopuru hori 2007koa baino handixeagoa da; ordukoa izan zen inoizko kopururik txikiena: 38.205 pertsona.

LHko erdi-mailako ikasketak edo bigarren mailako ez-profesionalak dituzten pertsonen kopuruak, ordea, gora egiten jarraitzen du. Pertsona horiek 233.320 ziren 1999an, baina 213.508 soilik 2007an, eta jaitsiera horren ondoren kolektiboa 256.026 pertsonako kopurura iritsi zen 2011n, eta inoizko kopururik handienera 2015ean: 274.540 pertsona.

### 3.3. Goi-mailako LH duten pertsonen kopurua ez aurrera ez atzera gelditu da

2007 eta 2011 artean, hirugarren mailako erdi-ikasketak eta goi-mailako ikasketa profesionalak zituzten biztanleekin lotzen zen biztanleria aktiboan prestakuntza-kualifikazioa hobetzeko faktore nagusia. Izan ere, LHko kolektibo hori etengabe ari zen gorantz; 1999. Urtean 173.777 pertsona ziren, eta 2011. Urtean, 232.132 pertsona (biztanleria aktiboaren % 17,5etik % 20,8ra igo zen, termino erlatibotan, aztertutako denbora-tartean). Baina, 2007-2011 aldian ez bezala, orduan % 15,4 egin baitzuen gora, 2011-2015 laurtekoan % 0,9 baino ez da handitu kolektibo hori. Emaitza biztanle aktibo horiek egonkortzea izan da; gaur egun 234.123 pertsona dira, aktibo guztien % 21.

### 3.4. 2011 eta 2015 artean, heziketa arautuaren indize sintetikoak 30-34 urteko pertsonen artean baino ez du behera egin, eta nabarmen egin du gora 55 urtetik beherakoen artean, bereziki 16-24 eta 40-44 dituztenen kasuan. HAIS nabarmen ari da aurrera egiten bi sexuetan, baina bereziki emakumeen artean.

HAISen bilakaera sexuaren eta adinaren arabera aztertuz gero, alderdi garrantzitsu hauek ikus daitezke:

* HAISen balioak 2011 eta 2015 artean izandako gorakada argi ikusten da gizonezko biztanle aktiboen artean, eta baliorik handiena 2015ean izan du: 3,57, aurretik, 2007an eta 2011n 3,48-3,49 izan ondoren. Hala ere, emakumeen HAISean gertatu da hazkunderik handiena. 1999 eta 2007 artean 3,51etik 3,85era handitu ondoren, 2011-2015 laurtekoan emakumezko biztanle aktiboen kopurua asko handitzearekin batera behera egin zuen

heziketa arautuaren adierazleak emakumezko aktiboen artean, 2011n 3,79 izanik HAISen balioa. Adierazleak goranzko joera hartu zuen berriz 2015ean, eta baliorik handiena lortu: 3,96. Gizonekiko diferentziala ere inoizko handiena izan da urte horretan, 0,39 puntukoa.

* HAISek 2011 eta 2015 artean izandako joera positiboak orokorra izatera jotzen du adin-talde guztietan, eta 2015eko adierazlean lortzen dira mailarik handienak. Salbuespen bakarra 30-34 urteko pertsonei dagokie, 4,09tik 4,05era jaitsi baita laurtekoan, eta, horri esker, adierazle honetan 1999 eta 2007 artean zeukan lehen tokia berreskuratu du 25-29 urteko taldeak (4,18 puntu 2015ean). Aurkako posizioan, 2011-2015 aldiko gehikuntzarik handienak 16-24 urteko pertsonei (3,46tik 3,80ra, gehikuntza 1999 eta 2007 artean izandakoaren ia bikoitza izanik, baliorik txikiena, 3,29, 1999an izan ondoren) eta 40-44 urtekoei (3,52tik 3,99ra, aurrez behera eginda ere; kasu honetan 2007ko 3, 74tik) dagozkie.

55 urtetik beherako gainerako taldeetan HAISen hazkundea 0,13 eta 0,19 puntu artekoa izan da 2011-2015 aldian. 55 urtekoen eta urte gehiagokoen taldean, 0,04 puntu baino ez da handitu HAISen maila.

Bi aldagaiak batera kontuan hartuta, ikusten da sexu- eta adin-talde guztien ezaugarria dela HAISek gorantz egitea 2011 eta 2015 artean. Hazkunderik handiena 35-44 urteko pertsonen artean ikusten da (+0,23 puntu gizonen artean; +0,41 puntu, berriz, emakumeen artean). Hazkundea, halaber, handiagoa da emakumeen artean 45 urteko eta urte gehiagoko pertsonei dagokienez: +0,16 puntukoa; gizonen artean, berriz, +0,04koa da. Adin-talde horretan, zeinean HAIS gorantz ari baita 1999tik, diferentziala bereziki deigarria da 2007-2015 aldi osoa kontuan hartzen bada (+0,31 puntu emakumeen artean, eta + 0,07 puntu baino ez gizonei dagokienez).

Hala ere, bilakaera antzekoagoa da 35 urtetik beherako pertsonen kasuan (+0,12 aurreratze-puntu emakumeen artean 2011-2015 laurtekoan; +0,09 puntu, berriz, gizonen artean). 2007-2015 aldian, gizonen arteko hobekuntza mantendu egin da 2007-2011 aldian, eta, horren ondorioz, 0,20 puntu egin dute aurrera 2007tik, baina emakumeek +0,03 baino ez, 2007-2011 laurtekoan izandako beherakada handiaren ondoren. Hala eta guztiz ere, 35 urtetik **beherako emakumeek lehen postuan jarraitzen dute HAISen, eta hori dute ezaugarri 1999tik** (4,28 2015. urtean).

Nolanahi ere, 2015ean, HAIS indizea handiagoa da adin guztietan emakumeen artean.

### 3.5. Berrikien gertatutako immigrazioak maila apaletan mantentzen du atzerritarren heziketa-adierazlea

HAISek zertxobait hobetu arren 2011 eta 2015 artean, oraindik ere azpimarragarria da zer-nolako eragin kaltegarria izan duen oraintsuagoko immigrazioak atzerritar biztanle aktiboen

batez besteko araututako heziketa-mailaren eboluzioan. Adierazleak, 2003ko 3,28tik 2007ko 3,45era handitu ondoren, 3,01era egin zuen behera 2011n, eta 3,09ra baino ez zen igo 2015ean. Zifra hori biztanleria nazionalaren 3,80tik urrun dago, hura etengabe igotzen ari baita 2003tik.

**Prestakuntza arautuari buruzko taulen eranskina**

**1.1 taula**
**Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren arabera**
**(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

| Prestakuntza-maila | Absolutuak | % bertikalak |
|---|---|---|
| Analfabetoak | 2.147 | 0,2 |
| Ikasketarik gabe | 8.243 | 0,7 |
| Lehen mailakoak amaitu gabe | 30.129 | 2,7 |
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **40.519** | **3,6** |
| Lehen mailakoak | 191.447 | 17,2 |
| Bigarren mailakoak amaitu gabe | 33.744 | 3,0 |
| **Lehen mailako ikasketak** | **225.191** | **20,2** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 132.115 | 11,9 |
| Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | 142.426 | 12,8 |
| **Erdi-mailako LH / lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak** | **274.540** | **24,7** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 234.123 | 21,0 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak | 117.045 | 10,5 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | 221.358 | 19,9 |
| **Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak** | **572.525** | **51,5** |
| **Guztira** | **1.112.776** | **100,0** |

**1.2 taula**
**Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera**
**(Datu absolutuak eta hazkunde-tasak)**

| | Datu absolutuak | | | | | Hazkunde-tasak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Prestakuntza-maila | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 | % 99-03 | % 03-07 | % 07-11 | % 11-15 | %99-15 |
| Analfabetoak | 1.952 | 1.854 | 1.294 | 5.061 | 2.147 | -5,0 | -30,2 | 291,2 | -57,6 | 10,0 |
| Ikasketarik gabe | 5.107 | 4.117 | 6.500 | 9.154 | 8.243 | -19,4 | 57,9 | 40,8 | -9,9 | 61,4 |
| Lehen mailakoak amaitu gabe | 74.017 | 51.724 | 30.412 | 43.662 | 30.129 | -30,1 | -41,2 | 43,6 | -31,0 | -59,3 |
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **81.076** | **57.695** | **38.205** | **57.876** | **40.519** | **-28,8** | **-33,8** | **51,5** | **-30,0** | **-50,0** |
| Lehen mailakoak | 240.045 | 256.274 | 243.644 | 236.784 | 191.447 | 6,8 | -4,9 | -2,8 | -19,1 | -20,2 |
| Bigarren mailakoak amaitu gabe | 41.788 | 38.381 | 21.285 | 17.243 | 33.744 | -8,2 | -44,5 | -19,0 | 95,7 | -19,2 |
| **Lehen mailako ikasketak** | **281.832** | **294.654** | **264.929** | **254.026** | **225.191** | **4,5** | **-10,1** | **-4,1** | **-11,4** | **-20,1** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 97.794 | 89.174 | 88.593 | 106.950 | 132.115 | -8,8 | -0,7 | 20,7 | 23,5 | 35,1 |
| Lanbidekoak ez diren big. mailakoak | 135.436 | 132.428 | 124.915 | 149.076 | 142.426 | -2,2 | -5,7 | 19,3 | -4,5 | 5,2 |
| **Erdi-mail. LH / lanb. ez diren big. m.** | **233.230** | **221.603** | **213.508** | **256.026** | **274.540** | **-5,0** | **-3,7** | **19,9** | **7,2** | **17,7** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 173.777 | 194.206 | 201.137 | 232.132 | 234.123 | 11,8 | 3,6 | 15,4 | 0,9 | 34,7 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikas. | 88.902 | 82.455 | 111.746 | 131.923 | 117.045 | -7,3 | 35,5 | 18,1 | -11,3 | 31,7 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikas. | 131.615 | 145.805 | 183.196 | 185.075 | 221.358 | 10,8 | 25,6 | 1,0 | 19,6 | 68,2 |
| **Goi-mailako LH / hirug. mailakoak** | **394.295** | **422.466** | **496.078** | **549.130** | **572.525** | **7,1** | **17,4** | **10,7** | **4,3** | **45,2** |
| **Guztira** | **990.434** | **996.418** | **1.012.720** | **1.117.059** | **1.112.776** | **0,6** | **1,6** | **10,3** | **-0,4** | **12,4** |

**1.3.a taula**
**Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera**
**(% bertikalak)**

| Prestakuntza-maila | Urtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
| | % ber. | % ber. | % ber. | % ber. | % ber. |
| Analfabetoak | 0,2 | 0,2 | 0,1 | 0,5 | 0,2 |
| Ikasketarik gabe | 0,5 | 0,4 | 0,6 | 0,8 | 0,7 |
| Lehen mailakoak amaitu gabe | 7,5 | 5,2 | 3 | 3,9 | 2,7 |
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **8,2** | **5,8** | **3,8** | **5,2** | **3,6** |
| Lehen mailakoak | 24,2 | 25,7 | 24,1 | 21,2 | 17,2 |
| Bigarren mailakoak amaitu gabe | 4,2 | 3,9 | 2,1 | 1,5 | 3 |
| **Lehen mailako ikasketak** | **28,5** | **29,6** | **26,2** | **22,7** | **20,2** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 9,9 | 8,9 | 8,7 | 9,6 | 11,9 |
| Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | 13,7 | 13,3 | 12,3 | 13,3 | 12,8 |
| **Erdi-mailako LH / lanbidekoak ez diren big. mail.** | **23,5** | **22,2** | **21,1** | **22,9** | **24,7** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 17,5 | 19,5 | 19,9 | 20,8 | 21 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak | 9 | 8,3 | 11 | 11,8 | 10,5 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | 13,3 | 14,6 | 18,1 | 16,6 | 19,9 |
| **Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak** | **39,8** | **42,4** | **49** | **49,2** | **51,5** |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

**1.3.b taula**
**Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera**
**(% bertikalak prestakuntza-talde agregatu bakoitzaren barruan)**

| Prestakuntza-maila | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| | % ber. talde barruan | % ber. talde barruan | % ber. talde barruan | % ber. talde barruan | % ber. talde barruan |
| Analfabetoak | 2,4 | 3,2 | 3,4 | 8,7 | 5,3 |
| Ikasketarik gabe | 6,3 | 7,1 | 17,0 | 15,8 | 20,3 |
| Lehen mailakoak amaitu gabe | 91,3 | 89,7 | 79,6 | 75,4 | 74,4 |
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Lehen mailakoak | 85,2 | 87,0 | 92,0 | 93,2 | 85,0 |
| Bigarren mailakoak amaitu gabe | 14,8 | 13,0 | 8,0 | 6,8 | 15,0 |
| **Lehen mailako ikasketak** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 41,9 | 40,2 | 41,5 | 41,8 | 48,1 |
| Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | 58,1 | 59,8 | 58,5 | 58,2 | 51,9 |
| **Erdi-mailako LH / lanbidekoak ez diren big. mail.** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 44,1 | 46,0 | 40,5 | 42,3 | 40,9 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak | 22,5 | 19,5 | 22,5 | 24,0 | 20,4 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | 33,4 | 34,5 | 36,9 | 33,7 | 38,7 |
| **Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

**1.4 taula**
**Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera**

| Urte | PAIS |
|---|---|
| 1999 | 3,34 |
| 2003 | 3,41 |
| 2007 | 3,64 |
| 2011 | 3,63 |
| 2015 | 3,75 |

**1.5 taula**
**Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta sexuaren arabera**
**(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

| Prestakuntza-maila | Gizonak | | Emakumeak | |
|---|---|---|---|---|
| | Absolutuak | % bertikalak | Abs. | % bertikalak |
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **23.574** | **4,0** | **16.945** | **3,2** |
| **Lehen mailako ikasketak** | **136.832** | **23,5** | **88.360** | **16,7** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 74.126 | 12,7 | 57.989 | 10,9 |
| Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | 74.155 | 12,7 | 68.270 | 12,9 |
| **Erdi-mail. LH / lanb. ez diren big. mail.** | **148.281** | **25,5** | **126.259** | **23,8** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 140.218 | 24,1 | 93.905 | 17,7 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak | 35.232 | 6,0 | 81.812 | 15,4 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | 98.400 | 16,9 | 122.958 | 23,2 |
| **Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak** | **273.850** | **47,0** | **298.675** | **56,3** |
| **Guztira** | **582.537** | **100,0** | **530.239** | **100,0** |

**1.6 taula**
**Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, sexuaren arabera**

| Urtea | PAIS | |
|---|---|---|
| | Gizonak | Emakumeak |
| 1999 | 3,22 | 3,51 |
| 2003 | 3,30 | 3,57 |
| 2007 | 3,48 | 3,85 |
| 2011 | 3,49 | 3,79 |
| 2015 | 3,57 | 3,96 |

**1.7.a taula**
**Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta adinaren arabera**
**(Datu absolutuak)**

| Prestakuntza-maila | 16-24 urte | 25-29 urte | 30-34 urte | 35-39 urte | 40-44 urte | 45-49 urte | 50-54 urte | 55 urte eta gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **2.111** | **1.015** | **1.513** | **6.565** | **5.595** | **6.514** | **4.683** | **12.523** |
| **Lehen mailako ikasketak** | **1.299** | **7.230** | **13.066** | **24.182** | **30.297** | **42.217** | **43.887** | **63.012** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 8.294 | 13.040 | 18.724 | 16.391 | 18.645 | 18.334 | 16.812 | 21.874 |
| Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | 12.042 | 9.950 | 20.625 | 20.814 | 11.894 | 17.659 | 14.046 | 35.395 |
| **Erdi-mail. LH / lanb. ez diren big. mail.** | **20.337** | **22.990** | **39.350** | **37.205** | **30.539** | **35.993** | **30.858** | **57.269** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 14.416 | 25.598 | 26.183 | 37.266 | 45.390 | 34.264 | 27.733 | 23.274 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak | 4.624 | 14.008 | 16.504 | 20.653 | 18.292 | 13.100 | 14.641 | 15.222 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | 6.983 | 21.119 | 29.959 | 33.705 | 43.275 | 33.556 | 22.403 | 30.359 |
| **Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak** | **26.023** | **60.724** | **72.646** | **91.623** | **106.957** | **80.920** | **64.777** | **68.855** |
| **Guztira** | **49.770** | **91.960** | **126.575** | **159.575** | **173.388** | **165.645** | **144.204** | **201.659** |

**1.7.b taula**
**Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta adinaren arabera**
**(% bertikalak)**

| Prestakuntza-maila | 16-24 urte | 25-29 urte | 30-34 urte | 35-39 urte | 40-44 urte | 45-49 urte | 50-54 urte | 55 urte eta gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **4,2** | **1,1** | **1,2** | **4,1** | **3,2** | **3,9** | **3,2** | **6,2** |
| **Lehen mailako ikasketak** | **2,6** | **7,9** | **10,3** | **15,2** | **17,5** | **25,5** | **30,4** | **31,2** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 16,7 | 14,2 | 14,8 | 10,3 | 10,8 | 11,1 | 11,7 | 10,8 |
| Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | 24,2 | 10,8 | 16,3 | 13,0 | 6,9 | 10,7 | 9,7 | 17,6 |
| **Erdi-mail. LH / lanb. ez diren big. mail.** | **40,9** | **25,0** | **31,1** | **23,3** | **17,6** | **21,7** | **21,4** | **28,4** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 29,0 | 27,8 | 20,7 | 23,4 | 26,2 | 20,7 | 19,2 | 11,5 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak | 9,3 | 15,2 | 13,0 | 12,9 | 10,5 | 7,9 | 10,2 | 7,5 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | 14,0 | 23,0 | 23,7 | 21,1 | 25,0 | 20,3 | 15,5 | 15,1 |
| **Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak** | **52,3** | **66,0** | **57,4** | **57,4** | **61,7** | **48,9** | **44,9** | **34,1** |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

**1.8.a taula**

**Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren arabera**

| Adina | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| 16-24 urte | 3,29 | 3,41 | 3,45 | 3,46 | 3,80 |
| 25-29 urte | 3,82 | 3,93 | 4,06 | 3,98 | 4,18 |
| 30-34 urte | 3,64 | 3,79 | 3,96 | 4,09 | 4,05 |
| 35-39 urte | 3,59 | 3,54 | 3,71 | 3,73 | 3,90 |
| 40-44 urte | 3,19 | 3,43 | 3,74 | 3,52 | 3,99 |
| 45-49 urte | 3,09 | 3,06 | 3,38 | 3,52 | 3,65 |
| 50-54 urte | 2,88 | 2,95 | 3,25 | 3,34 | 3,51 |
| 55 urte eta gehiago | 2,64 | 2,72 | 3,24 | 3,26 | 3,30 |

**1.8.b taula**

**Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren eta sexuaren arabera**

**Gizonak**

| Adina | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| 16-24 urte | 3,13 | 3,23 | 3,15 | 3,45 | 3,69 |
| 25-29 urte | 3,60 | 3,73 | 3,86 | 3,77 | 3,91 |
| 30-34 urte | 3,47 | 3,58 | 3,61 | 3,80 | 3,80 |
| 35-39 urte | 3,40 | 3,43 | 3,46 | 3,48 | 3,65 |
| 40-44 urte | 3,19 | 3,34 | 3,63 | 3,43 | 3,70 |
| 45-49 urte | 3,06 | 3,04 | 3,29 | 3,43 | 3,39 |
| 50-54 urte | 2,92 | 2,98 | 3,26 | 3,29 | 3,39 |
| 55 urte eta gehiago | 2,78 | 2,87 | 3,35 | 3,27 | 3,35 |

**1.8.c taula**

**Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren eta sexuaren arabera**

**Emakumeak**

| Adina | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| 16-24 urte | 3,49 | 3,66 | 3,87 | 3,48 | 3,93 |
| 25-29 urte | 4,06 | 4,17 | 4,32 | 4,20 | 4,44 |
| 30-34 urte | 3,85 | 4,03 | 4,34 | 4,41 | 4,30 |
| 35-39 urte | 3,80 | 3,69 | 4,01 | 3,99 | 4,15 |
| 40-44 urte | 3,20 | 3,56 | 3,89 | 3,65 | 4,32 |
| 45-49 urte | 3,13 | 3,09 | 3,49 | 3,63 | 3,95 |
| 50-54 urte | 2,77 | 2,89 | 3,23 | 3,39 | 3,64 |
| 55 urte eta gehiago | 2,32 | 2,43 | 3,01 | 3,24 | 3,24 |

**1.9.a taula**
**Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera**
**(Datu absolutuak)**

| Prestakuntza-maila | < 35 urteko gizonak | 35-44 urteko gizonak | >= 45 urteko gizonak | < 35 urteko emakum. | 35-44 urteko emakum. | >= 45 urteko emakum. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **2.615** | **7.567** | **13.392** | **2.024** | **4.592** | **10.329** |
| **Lehen mailako ikasketak** | **12.309** | **34.829** | **89.693** | **9.287** | **19.650** | **59.423** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 27.770 | 18.133 | 28.222 | 12.288 | 16.903 | 28.798 |
| Lanbidekoak ez diren big. mailakoak | 20.934 | 17.756 | 35.465 | 21.684 | 14.952 | 31.635 |
| **Erdi-m. LH / lanb. ez diren big. m.** | **48.704** | **35.889** | **63.687** | **33.972** | **31.855** | **60.433** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 38.452 | 51.336 | 50.430 | 27.745 | 31.320 | 34.841 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikas. | 10.246 | 11.651 | 13.336 | 24.890 | 27.295 | 29.627 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikas. | 22.646 | 29.933 | 45.820 | 35.414 | 47.046 | 40.498 |
| **Goi-mailako LH / hirug. mailakoak** | **71.344** | **92.919** | **109.587** | **88.049** | **105.661** | **104.966** |
| **Guztira** | **134.973** | **171.205** | **276.359** | **133.332** | **161.758** | **235.150** |

**1.9.b taula**
**Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera**
**(% bertikalak)**

| Prestakuntza-maila | < 35 urteko gizonak | 35-44 urteko gizonak | >= 45 urteko gizonak | < 35 urteko emaku. | 35-44 urteko emaku. | >= 45 urteko emaku. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lehen mailako ikasketarik gabe** | **1,9** | **4,4** | **4,8** | **1,5** | **2,8** | **4,4** |
| **Lehen mailako ikasketak** | **9,1** | **20,3** | **32,5** | **7,0** | **12,1** | **25,3** |
| LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | 20,6 | 10,6 | 10,2 | 9,2 | 10,4 | 12,2 |
| Lanbidekoak ez diren big. mailakoak | 15,5 | 10,4 | 12,8 | 16,3 | 9,2 | 13,5 |
| **Erdi-m. LH / lanb. ez diren big. m.** | **36,1** | **21,0** | **23,0** | **25,5** | **19,7** | **25,7** |
| LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | 28,5 | 30,0 | 18,2 | 20,8 | 19,4 | 14,8 |
| Hirugarren mailako erdi-mailako ikas. | 7,6 | 6,8 | 4,8 | 18,7 | 16,9 | 12,6 |
| Hirugarren mailako goi-mailako ikas. | 16,8 | 17,5 | 16,6 | 26,6 | 29,1 | 17,2 |
| **Goi-mailako LH / hirug. mailakoak** | **52,9** | **54,3** | **39,7** | **66,0** | **65,3** | **44,6** |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

**1.10.a taula**

**Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera**

**(Datu absolutuak)**

| Sexua eta adina | | Lehen mailako ikasketarik gabe | Lehen mailako ikasketak | LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | Erdi-mailako LH / lanb. ez diren big. m. | LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | Hirug. mailako erdi-mailako ikasketak | Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| < 35 urteko gizonak | 1999 | **12.299** | **60.788** | 27.314 | 34.933 | **62.248** | 64.100 | 11.591 | 30.308 | **105.999** | **241.334** |
| | 2003 | **8.384** | **44.649** | 22.374 | 33.747 | **56.121** | 64.577 | 12.270 | 29.311 | **106.158** | **215.311** |
| | 2007 | **5.405** | **44.659** | 22.369 | 29.261 | **51.630** | 50.900 | 15.746 | 31.881 | **98.526** | **200.220** |
| | 2011 | **6.561** | **30.052** | 20.952 | 26.363 | **47.315** | 49.161 | 15.984 | 30.814 | **95.959** | **179.887** |
| | 2015 | **2.615** | **12.309** | 27.770 | 20.934 | **48.704** | 38.452 | 10.246 | 22.646 | **71.344** | **134.973** |
| 35-44 urteko gizonak | 1999 | **7.960** | **48.513** | 15.961 | 25.020 | **40.981** | 24.519 | 8.936 | 20.612 | **54.067** | **151.522** |
| | 2003 | **7.996** | **49.969** | 16.307 | 17.098 | **33.405** | 33.013 | 10.821 | 22.824 | **66.658** | **158.028** |
| | 2007 | **5.550** | **47.083** | 15.263 | 17.154 | **32.417** | 39.070 | 15.067 | 25.944 | **80.081** | **165.132** |
| | 2011 | **12.844** | **40.292** | 18.966 | 20.542 | **39.508** | 54.573 | 12.065 | 21.965 | **88.603** | **181.246** |
| | 2015 | **7.567** | **34.829** | 18.133 | 17.756 | **35.889** | 51.336 | 11.651 | 29.933 | **92.919** | **171.205** |
| >= 45 urteko gizonak | 1999 | **29.927** | **70.902** | 10.297 | 23.659 | **33.956** | 21.448 | 10.329 | 20.335 | **52.112** | **186.898** |
| | 2003 | **17.172** | **90.592** | 12.673 | 23.909 | **36.582** | 30.954 | 9.442 | 19.866 | **60.262** | **204.609** |
| | 2007 | **11.773** | **81.609** | 11.722 | 26.289 | **38.010** | 38.285 | 14.772 | 32.760 | **85.817** | **217.210** |
| | 2011 | **12.782** | **78.438** | 19.266 | 36.655 | **55.922** | 43.769 | 16.653 | 34.544 | **94.966** | **242.107** |
| | 2015 | **13.392** | **89.693** | 28.222 | 35.465 | **63.687** | 50.430 | 13.336 | 45.820 | **109.587** | **276.359** |
| < 35 urteko emakum. | 1999 | **6.306** | **37.908** | 25.917 | 27.377 | **53.294** | 43.869 | 29.874 | 38.399 | **112.141** | **209.649** |
| | 2003 | **3.281** | **27.108** | 13.840 | 30.786 | **44.626** | 36.893 | 20.457 | 44.838 | **102.187** | **177.203** |
| | 2007 | **4.036** | **13.469** | 16.557 | 20.611 | **37.168** | 33.681 | 31.298 | 42.523 | **107.502** | **162.175** |
| | 2011 | **4.403** | **16.710** | 18.724 | 25.389 | **44.113** | 28.062 | 33.750 | 41.949 | **103.761** | **168.986** |
| | 2015 | **2.024** | **9.287** | 12.288 | 21.684 | **33.972** | 27.745 | 24.890 | 35.414 | **88.049** | **133.332** |
| 35-44 urteko emakum. | 1999 | **6.236** | **31.797** | 12.768 | 12.489 | **25.257** | 15.077 | 17.747 | 16.624 | **49.448** | **112.738** |
| | 2003 | **4.638** | **33.740** | 15.327 | 11.938 | **27.264** | 18.164 | 18.496 | 21.082 | **57.742** | **123.384** |
| | 2007 | **2.905** | **27.810** | 11.257 | 13.626 | **24.883** | 24.422 | 17.292 | 32.137 | **73.852** | **129.449** |
| | 2011 | **6.738** | **28.846** | 13.524 | 19.340 | **32.864** | 33.701 | 24.926 | 27.871 | **86.497** | **154.944** |
| | 2015 | **4.592** | **19.650** | 16.903 | 14.952 | **31.855** | 31.320 | 27.295 | 47.046 | **105.661** | **161.758** |
| >= 45 urteko emakum. | 1999 | **18.347** | **31.924** | 5.537 | 11.958 | **17.495** | 4.764 | 10.426 | 5.338 | **20.527** | **88.293** |
| | 2003 | **16.224** | **48.597** | 8.654 | 14.950 | **23.604** | 10.605 | 10.970 | 7.883 | **29.458** | **117.883** |
| | 2007 | **8.537** | **50.299** | 11.425 | 17.974 | **29.399** | 14.778 | 17.571 | 17.951 | **50.299** | **138.535** |
| | 2011 | **14.549** | **59.688** | 15.518 | 20.787 | **36.305** | 22.867 | 28.546 | 27.933 | **79.346** | **189.888** |
| | 2015 | **10.329** | **59.423** | 28.798 | 31.635 | **60.433** | 34.841 | 29.627 | 40.498 | **104.966** | **235.150** |
| Guztira | **1999** | **81.076** | **281.832** | 97.794 | 135.436 | **233.230** | 173.777 | 88.902 | 131.615 | **394.295** | **990.434** |
| | **2003** | **57.695** | **294.654** | 89.174 | 132.428 | **221.603** | 194.206 | 82.455 | 145.805 | **422.466** | **996.418** |
| | **2007** | **38.205** | **264.929** | 88.593 | 124.915 | **213.508** | 201.137 | 111.746 | 183.196 | **496.078** | **1.012.720** |
| | **2011** | **57.876** | **254.026** | 106.950 | 149.076 | **256.026** | 232.132 | 131.923 | 185.075 | **549.130** | **1.117.059** |
| | **2015** | **40.519** | **225.191** | 132.115 | 142.426 | **274.540** | 234.123 | 117.045 | 221.358 | **572.525** | **1.112.776** |

**1.10.b taula**

**Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera**

**(% horizontalak)**

| Sexua eta adina | | Lehen mailako ikasketarik gabe | Lehen mailako ikasketak | LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | Erdi-mailako LH / lanb. ez diren big. m. | LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | Hirug. mailako erdi-mailako ikasketak | Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **< 35 urteko gizonak** | 1999 | **5,1** | **25,2** | 11,3 | 14,5 | **25,8** | 26,6 | 4,8 | 12,6 | **43,9** | **100,0** |
| | 2003 | **3,9** | **20,7** | 10,4 | 15,7 | **26,1** | 30,0 | 5,7 | 13,6 | **49,3** | **100,0** |
| | 2007 | **2,7** | **22,3** | 11,2 | 14,6 | **25,8** | 25,4 | 7,9 | 15,9 | **49,2** | **100,0** |
| | 2011 | **3,6** | **16,7** | 11,6 | 14,7 | **26,3** | 27,3 | 8,9 | 17,1 | **53,3** | **100,0** |
| | 2015 | **1,9** | **9,1** | 20,6 | 15,5 | **36,1** | 28,5 | 7,6 | 16,8 | **52,9** | **100,0** |
| **35-44 urteko gizonak** | 1999 | **5,3** | **32,0** | 10,5 | 16,5 | **27,0** | 16,2 | 5,9 | 13,6 | **35,7** | **100,0** |
| | 2003 | **5,1** | **31,6** | 10,3 | 10,8 | **21,1** | 20,9 | 6,8 | 14,4 | **42,2** | **100,0** |
| | 2007 | **3,4** | **28,5** | 9,2 | 10,4 | **19,6** | 23,7 | 9,1 | 15,7 | **48,5** | **100,0** |
| | 2011 | **7,1** | **22,2** | 10,5 | 11,3 | **21,8** | 30,1 | 6,7 | 12,1 | **48,9** | **100,0** |
| | 2015 | **4,4** | **20,3** | 10,6 | 10,4 | **21,0** | 30,0 | 6,8 | 17,5 | **54,3** | **100,0** |
| **>= 45 urteko gizonak** | 1999 | **16,0** | **37,9** | 5,5 | 12,7 | **18,2** | 11,5 | 5,5 | 10,9 | **27,9** | **100,0** |
| | 2003 | **8,4** | **44,3** | 6,2 | 11,7 | **17,9** | 15,1 | 4,6 | 9,7 | **29,5** | **100,0** |
| | 2007 | **5,4** | **37,6** | 5,4 | 12,1 | **17,5** | 17,6 | 6,8 | 15,1 | **39,5** | **100,0** |
| | 2011 | **5,3** | **32,4** | 8,0 | 15,1 | **23,1** | 18,1 | 6,9 | 14,3 | **39,2** | **100,0** |
| | 2015 | **4,8** | **32,5** | 10,2 | 12,8 | **23,0** | 18,2 | 4,8 | 16,6 | **39,7** | **100,0** |
| **< 35 urteko emakum.** | 1999 | **3,0** | **18,1** | 12,4 | 13,1 | **25,4** | 20,9 | 14,2 | 18,3 | **53,5** | **100,0** |
| | 2003 | **1,9** | **15,3** | 7,8 | 17,4 | **25,2** | 20,8 | 11,5 | 25,3 | **57,7** | **100,0** |
| | 2007 | **2,5** | **8,3** | 10,2 | 12,7 | **22,9** | 20,8 | 19,3 | 26,2 | **66,3** | **100,0** |
| | 2011 | **2,6** | **9,9** | 11,1 | 15,0 | **26,1** | 16,6 | 20,0 | 24,8 | **61,4** | **100,0** |
| | 2015 | **1,5** | **7,0** | 9,2 | 16,3 | **25,5** | 20,8 | 18,7 | 26,6 | **66,0** | **100,0** |
| **35-44 urteko emakum.** | 1999 | **5,5** | **28,2** | 11,3 | 11,1 | **22,4** | 13,4 | 15,7 | 14,7 | **43,9** | **100,0** |
| | 2003 | **3,8** | **27,3** | 12,4 | 9,7 | **22,1** | 14,7 | 15,0 | 17,1 | **46,8** | **100,0** |
| | 2007 | **2,2** | **21,5** | 8,7 | 10,5 | **19,2** | 18,9 | 13,4 | 24,8 | **57,1** | **100,0** |
| | 2011 | **4,3** | **18,6** | 8,7 | 12,5 | **21,2** | 21,8 | 16,1 | 18,0 | **55,8** | **100,0** |
| | 2015 | **2,8** | **12,1** | 10,4 | 9,2 | **19,7** | 19,4 | 16,9 | 29,1 | **65,3** | **100,0** |
| **>= 45 urteko emakum.** | 1999 | **20,8** | **36,2** | 6,3 | 13,5 | **19,8** | 5,4 | 11,8 | 6,0 | **23,2** | **100,0** |
| | 2003 | **13,8** | **41,2** | 7,3 | 12,7 | **20,0** | 9,0 | 9,3 | 6,7 | **25,0** | **100,0** |
| | 2007 | **6,2** | **36,3** | 8,2 | 13,0 | **21,2** | 10,7 | 12,7 | 13,0 | **36,3** | **100,0** |
| | 2011 | **7,7** | **31,4** | 8,2 | 10,9 | **19,1** | 12,0 | 15,0 | 14,7 | **41,8** | **100,0** |
| | 2015 | **4,4** | **25,3** | 12,2 | 13,5 | **25,7** | 14,8 | 12,6 | 17,2 | **44,6** | **100,0** |
| **Guztira** | **1999** | **8,2** | **28,5** | 9,9 | 13,7 | **23,5** | 17,5 | 9,0 | 13,3 | **39,8** | **100,0** |
| | **2003** | **5,8** | **29,6** | 8,9 | 13,3 | **22,2** | 19,5 | 8,3 | 14,6 | **42,4** | **100,0** |
| | **2007** | **3,8** | **26,2** | 8,7 | 12,3 | **21,1** | 19,9 | 11,0 | 18,1 | **49,0** | **100,0** |
| | **2011** | **5,2** | **22,7** | 9,6 | 13,3 | **22,9** | 20,8 | 11,8 | 16,6 | **49,2** | **100,0** |
| | **2015** | **3,6** | **20,2** | 11,9 | 12,8 | **24,7** | 21,0 | 10,5 | 19,9 | **51,5** | **100,0** |

**1.10.c taula**

**Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera**

**(1999-2011 hazkunde-tasa)**

| Sexua eta adina | | Lehen mailako ikasketarik gabe | Lehen mailako ikasketak | LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa | Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak | Erdi-mailako LH / lanb. ez diren big. m. | LH II, goi-mailako lanbide-heziketa | Hirug. mailako erdi-mailako ikasketak | Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak | Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **< 35 urteko gizonak** | %99-03 | **-31,8** | **-26,5** | -18,1 | -3,4 | **-9,8** | 0,7 | 5,9 | -3,3 | **0,1** | **-10,8** |
| | % 03-07 | **-35,5** | **0,0** | 0,0 | -13,3 | **-8,0** | -21,2 | 28,3 | 8,8 | **-7,2** | **-7,0** |
| | % 07-11 | **21,4** | **-32,7** | -6,3 | -9,9 | **-8,4** | -3,4 | 1,5 | -3,3 | **-2,6** | **-10,2** |
| | % 11-15 | **-60,1** | **-59,0** | 32,5 | -20,6 | **2,9** | -21,8 | -35,9 | -26,5 | **-25,7** | **-25,0** |
| | % 99-15 | **-78,7** | **-79,8** | 1,7 | -40,1 | **-21,8** | -40,0 | -11,6 | -25,3 | **-32,7** | **-44,1** |
| **35-44 urteko gizonak** | %99-03 | **0,4** | **3,0** | 2,2 | -31,7 | **-18,5** | 34,6 | 21,1 | 10,7 | **23,3** | **4,3** |
| | % 03-07 | **-30,6** | **-5,8** | -6,4 | 0,3 | **-3,0** | 18,3 | 39,2 | 13,7 | **20,1** | **4,5** |
| | % 07-11 | **131,4** | **-14,4** | 24,3 | 19,7 | **21,9** | 39,7 | -19,9 | -15,3 | **10,6** | **9,8** |
| | % 11-15 | **-41,1** | **-13,6** | -4,4 | -13,6 | **-9,2** | -5,9 | -3,4 | 36,3 | **4,9** | **-5,5** |
| | % 99-15 | **-4,9** | **-28,2** | 13,6 | -29,0 | **-12,4** | 109,4 | 30,4 | 45,2 | **71,9** | **13,0** |
| **>= 45 urteko gizonak** | %99-03 | **-42,6** | **27,8** | 23,1 | 1,1 | **7,7** | 44,3 | -8,6 | -2,3 | **15,6** | **9,5** |
| | % 03-07 | **-31,4** | **-9,9** | -7,5 | 10,0 | **3,9** | 23,7 | 56,4 | 64,9 | **42,4** | **6,2** |
| | % 07-11 | **8,6** | **-3,9** | 64,4 | 39,4 | **47,1** | 14,3 | 12,7 | 5,4 | **10,7** | **11,5** |
| | % 11-15 | **4,8** | **14,3** | 46,5 | -3,2 | **13,9** | 15,2 | -19,9 | 32,6 | **15,4** | **14,1** |
| | % 99-15 | **-55,3** | **26,5** | 174,1 | 49,9 | **87,6** | 135,1 | 29,1 | 125,3 | **110,3** | **47,9** |
| **< 35 urteko emakum.** | %99-03 | **-48,0** | **-28,5** | -46,6 | 12,5 | **-16,3** | -15,9 | -31,5 | 16,8 | **-8,9** | **-15,5** |
| | % 03-07 | **23,0** | **-50,3** | 19,6 | -33,1 | **-16,7** | -8,7 | 53,0 | -5,2 | **5,2** | **-8,5** |
| | % 07-11 | **9,1** | **24,1** | 13,1 | 23,2 | **18,7** | -16,7 | 7,8 | -1,3 | **-3,5** | **4,2** |
| | % 11-15 | **-54,0** | **-44,4** | -34,4 | -14,6 | **-23,0** | -1,1 | -26,3 | -15,6 | **-15,1** | **-21,1** |
| | % 99-15 | **-67,9** | **-75,5** | -52,6 | -20,8 | **-36,3** | -36,8 | -16,7 | -7,8 | **-21,5** | **-36,4** |
| **35-44 urteko emakum.** | %99-03 | **-25,6** | **6,1** | 20,0 | -4,4 | **7,9** | 20,5 | 4,2 | 26,8 | **16,8** | **9,4** |
| | % 03-07 | **-37,4** | **-17,6** | -26,6 | 14,1 | **-8,7** | 34,5 | -6,5 | 52,4 | **27,9** | **4,9** |
| | % 07-11 | **132,0** | **3,7** | 20,1 | 41,9 | **32,1** | 38,0 | 44,1 | -13,3 | **17,1** | **19,7** |
| | % 11-15 | **-31,8** | **-31,9** | 25,0 | -22,7 | **-3,1** | -7,1 | 9,5 | 68,8 | **22,2** | **4,4** |
| | % 99-15 | **-26,4** | **-38,2** | 32,4 | 19,7 | **26,1** | 107,7 | 53,8 | 183,0 | **113,7** | **43,5** |
| **>= 45 urteko emakum.** | %99-03 | **-11,6** | **52,2** | 56,3 | 25,0 | **34,9** | 122,6 | 5,2 | 47,7 | **43,5** | **33,5** |
| | % 03-07 | **-47,4** | **3,5** | 32,0 | 20,2 | **24,6** | 39,3 | 60,2 | 127,7 | **70,7** | **17,5** |
| | % 07-11 | **70,4** | **18,7** | 35,8 | 15,6 | **23,5** | 54,7 | 62,5 | 55,6 | **57,7** | **37,1** |
| | % 11-15 | **-29,0** | **-0,4** | 85,6 | 52,2 | **66,5** | 52,4 | 3,8 | 45,0 | **32,3** | **23,8** |
| | % 99-15 | **-43,7** | **86,1** | 420,1 | 164,5 | **245,4** | 631,3 | 184,2 | 658,7 | **411,3** | **166,3** |
| **Guztira** | **%99-03** | **-28,8** | **4,5** | -8,8 | -2,2 | **-5,0** | 11,8 | -7,3 | 10,8 | **7,1** | **0,6** |
| | **% 03-07** | **-33,8** | **-10,1** | -0,7 | -5,7 | **-3,7** | 3,6 | 35,5 | 25,6 | **17,4** | **1,6** |
| | **% 07-11** | **51,5** | **-4,1** | 20,7 | 19,3 | **19,9** | 15,4 | 18,1 | 1,0 | **10,7** | **10,3** |
| | **% 11-15** | **-30,0** | **-11,4** | 23,5 | -4,5 | **7,2** | 0,9 | -11,3 | 19,6 | **4,3** | **-0,4** |
| | **% 99-15** | **-50,0** | **-20,1** | 35,1 | 5,2 | **17,7** | 34,7 | 31,7 | 68,2 | **45,2** | **12,4** |

**1.11 taula**
**Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera**

| PARIS | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| < 35 urteko gizonak | 3,41 | 3,56 | 3,62 | 3,73 | 3,82 |
| 35-44 urteko gizonak | 3,29 | 3,39 | 3,55 | 3,45 | 3,68 |
| >= 45 urteko gizonak | 2,92 | 2,96 | 3,30 | 3,33 | 3,37 |
| < 35 urteko emakumeak | 3,82 | 4,02 | 4,26 | 4,16 | 4,28 |
Esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria aktiboan, gainera, 2007 eta 2011 artean, ez-okupazio tasaren igoera ez zen izan hain azkarra ikasketa kualifikatuak zituztenen artean (% 11,7tik % 24,4ra), prestakuntza osagarria zutenen artean eta prestakuntzarik gabeko kolektiboan ez bezala (% 16,4tik % 40,7ra eta % 11,9tik % 40,4ra, hurrenez hurren). Azken kolektibo horri 2011-2015 laurtekoan eragiten dion problematikak korapilatsuagoa izaten jarraitu arren, tasa % 40,4tik % 51,4ra aldatuta, egoeraren okertzea oso deigarria da ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean. Kasu horretan, tasa % 24,4tik % 31,7ra aldatzen da, eta tasaren igoera handiagoa da 2011-2015ean prestakuntza osagarria duten biztanleen artean gertatzen dena (% 40,7tik % 44ra) baino.

2011n ez bezala, orduko mailak 1999koen antzekoak baitziren, 2015eko ez-okupazio tasa 1999koa baino 7,8 puntu handiagoa izan zen ikasketa kualifikatuak zituen taldean (% 31,7; % 23,9, berriz, 1999an). 2015ean, alde hori antzekoa izan zen prestakuntza osagarria duten kualifikaziorik gabeko pertsonen artean (% 44, baina % 35,7 prestakuntza osagarria duten pertsonen artean). Beherakada inolako prestakuntza esanguratsurik gabeko pertsonen artean baino ez da askoz handiagoa: % 51,4 % 33,3ren aldean; 18,1 puntu gainetik 2015ean.

### 18.1. Batere lan-esperientziarik ez izateak mugatua izaten jarraitzen duen testuinguru batean

Lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria aktiboan, aztertutako mugak oraindik ere ez dira erlazionatzen lehen lan-esperientzia izateko zailtasunekin, eta arazoaren eragina % 3,7koa baino ez da 2015ean; beraz, 2011ko % 5,1a eta 1999ko % 7,2a baino txikiagoa. Zenbakirik handiena ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonei dagokie: % 4,5. Soil-soilik gainditzen da % 5eko atalasea kontuan hartuz gero biztanleria potentzialki aktibo osoa prestakuntza esanguratsuren bat duten ikasketa kualifikaturik gabekoen taldean (% 6, baina beherantz 2011ko % 9,6aren aldean).

### 18.2. Baina laneko ezegonkortasunaren eraginak berebiziko garrantzia izanik

Lan-esperientzia esanguratsurik ez duten taldeetako biztanleria landunaren artean, laneko ezegonkortasuna da alderdi azpimarragarrienetako bat. Hartara, erreferentziazko kolektiboetan, oso handia da 2015ean aldi baterako kontratuarekin, obra-kontratuarekin edo are kontraturik gabe ere lan egiten duten pertsonen proportzioa, eta gora egiten du, gainera, prestakuntza-mailarekin. Eta, hala, % 34,9 da prestakuntza esanguratsurik gabeko pertsonen artean, % 43,6 prestakuntza osagarria dutenen artean, eta % 47,5 ikasketa kualifikatuak dituztenen artean. 2011. urtearen aldean oro har handituta ere, lan-esperientzia esanguratsua duten kolektiboen artean, berriz, % 7,8-9,6 izan da proportzioa, prestakuntza-maila edozein dela ere.

Daturik kezkagarriena da nabarmen gehitu direla kontratatzeko biderik badaezpadakoenak prestakuntza kualifikatua duten esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen artean. Kasu horretan, 2015eko ehunekoak (% 47,5) 2003tik 2011ra artekoak (% 41,1-43,5) gainditzen ditu, eta 1999an izandakoaren azpitik (% 51,9) baino ez da geratzen.

## 19. Gizonen lan-egoerak okerrera egin du emakumeenaren aldean; batez ere, ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientziarik ez dutenen artean

Batera kontuan hartuta kualifikazioari, sexuari eta adinari lotutako aldagaiak, ikusten da azken lau urteetan okupazio-zenbakietan izandako bilakaerarik txarrena biztanleria aktiboaren barruko kolektibo jakin batzuei dagokiela, eta kolektibo horietan, 2015ean, ez-okupazio tasak % 15 edo handiagoak izatearekin batera, tasa horietan 2007-2015 aldian 10 puntura hurbildu ziren edo zenbaki hori gainditu zuten gehikuntzak gertatu zirela.

Lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen artean, errealitate horrek prestakuntza osagarriren bat duten eta ikasketa kualifikaturik gabekoak diren 35 urtetik beherako gizonezkoei eta 35-44 urteko emakumezkoei baino ez die eragiten, eta aipatutako emakume-talde hori da 2011tik posizio horretan iraun duen bakarra. Lan-esperientzia esanguratsurik ez daukaten pertsonen artean, berriz, deskribatutako egoerak ikasketa kualifikaturik gabeko pertsona guztiei eragiten zien 2011n, prestakuntza osagarri esanguratsuren bat eduki edo ez, bai eta ikasketa kualifikatuak zituzten 35 urtetik beherako gizonei nahiz emakumeei ere. 2015ean, okertze-egoera, praktikan, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko kolektibo osoaren ezaugarria da.

Esperientzia esanguratsurik gabeko kolektiboaren barruan, 2011 eta 2015 artean, bilakaera bereziki negatiboa da ikasketa kualifikatuak dituzten 35 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, eta ez-okupazio tasaren igoerak 15 puntutik gorakoak dira, eta tasak % 27,5etik hurbil daude edo ehuneko hori baino handiagoak dira 2015ean. Badaude 2011 eta 2015

artean ez-okupazio tasetan antzeko igoera izan duten beste talde batzuk, hala nola ikasketa kualifikaturik ez duten edo, gehienez ere, kualifikaziorik gabeko prestakuntza osagarriren bat duten 35 urtetik beherako emakumeena eta ikasketa kualifikaturik gabeko 45 urtetik gorako emakumeena. Aipatutako azken talde horietan, ez-okupazio tasek % 50eko atalasea gainditzen dute; 2007an, berriz, txarrenean ere, ez zuten % 16,8a gainditzen.

Kualifikaziorik gabeko beste kolektibo batzuetan, ez-okupazio tasak egonkor mantentzen dira, edo hazkunde neurritsua izan dute 2011 eta 2015 artean, baina, era berean, ez-okupazioaren % 50aren inguruan edo gainetik daude (salbuespen bakarra 35 urtetik beherako gizonena da, % 34,7ko tasarekin). Dinamika antzeko samarra da prestakuntza osagarria duten pertsonen artean, bereziki egoera horretan dauden 35 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako gizonen eta 35-44 urteko emakumeen artean. Horrelakoetan, ez-okupazio tasa % 40ko eta are % 50eko mailak gainditzen ditu 45 urtetik gorako gizonen artean. Prestakuntza osagarria duten bi taldetan da pixka bat hobea egoera: 35-44 urteko gizonen eta 45 urtetik gorako emakumeen artean; tasak, ordea, % 33,6 eta % 38,7 dira oraindik.

Deigarria da ez-okupazioaren bilakaera esperientzia esanguratsurik ez duten ikasketa kualifikaturik gabeko eta 35 urtetik beherako pertsonen artean. Gizonezkoen egoerak okertzen jarraitzen du, eta ez-okupazioaren tasa % 38,5era iristen da, baina adierazlea argi hobetu dela ikusten den kasu gutxietako bat 35 urtetik beherako emakumeena da. Tasa, kasu horretan, % 27,6tik % 22,3ra jaisten da. Kasu horretan soilik dago ez-okupazio tasa % 25aren azpitik 2015ean esperientzia esanguratsurik izan ez duen talde batean.

Badago azpimarratu beharreko beste datu kezkagarri bat: 2003tik etengabe egin dute okerrera ez-okupazio tasek lan-esperientzia esanguratsurik eta ikasketa kualifikaturik gabeko 45 urtetik gorako gizonen artean. Prestakuntza osagarria izanda, ez-okupazio tasak gora egiten du, etengabe, 2003ko % 14,2tik 2015eko % 53,9ra. Gorakada % 12,3tik % 53,6ra artekoa da prestakuntza osagarririk izan gabe. Gizon-talde horren badaezpadako egoera, esperientzia esanguratsua falta izanez gero, ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artera ere zabaltzen da, eta ez-okupazio tasa 2008an hutsaren hurrengoa izan ondoren % 38,4ra iritsi da 2015ean.

## LAN-ESPERIENTZIA ESANGURATSUA LORTZEKO AUKERAK MURRIZTEA BALDINTZATZEN DUTEN EGOERAK

Lan-esperientzia esanguratsua ez izateak askoz langabezia-tasa eta ez-okupazio tasa handiagoak ekarri ohi dituenez eta enpresarekiko harremana ezegonkorra izatea eragin ohi duenez, komeni da adieraztea zer egoerak eragiten duten, nagusiki, lan-esperientzia esanguratsu bat eskuratu ezin izateko arriskurik handiena. Era berean, adierazi behar da zer

taldek duten esperientzia faltari lotutako arazoa izateko arriskurik handiena, bai ikuspegi demografikotik, bai eta lortutako prestakuntza arautuaren ikuspegitik ere.

## 20. Okupazioarekin lotutako arrisku-faktore nagusiak

### 20.1. Kualifikazio txikieneko lanbideak eta lanbide-kategoriak

Lanbidearen ikuspegitik, zuzendariek eta teknikariek, bai eta administrariek ere, EAEko batez bestekoak baino askoz aukera handiagoa dute lan-esperientzia esanguratsua lortzeko: % 80 inguruko edo hortik gorako mailak dituzte erreferentziako biztanleria landunean (% 78,8 eta % 82,1, hurrenez hurren). % 69,2 izanda, maila EAEko batez besteko kopuruetan dago zerbitzuz besteko sektoreetako langile kualifikatuen artean. Kolektibo horiek lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria landunaren % 78,3 osatzen dute (% 77,5, berriz, 2011n).

Aipatu kolektiboetan ez bezala, lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen proportzioa % 56,2 da zerbitzuetako langile kualifikatuen artean, eta % 64,2 zerbitzuz besteko sektoreetako langile ez-kualifikatuen kasuan. Gutxienekoa, % 40,8, zerbitzu-sektoreko langile ez-kualifikatuei dagokie. Talde horiek esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria landunaren % 45,3 dira (% 46,1 2011n).

Lanbide-kategoriaren aldagaia kontuan hartzen badugu, argi ikus dezakegu lan-esperientzia esanguratsurik ez izatearen eta lanbide-kualifikaziorik ez izatearen arteko lotura. Kualifikaziorik gabeko langileen kategoria da lan-esperientzia esanguratsurik ez izatearekin lotura handiena duena; izan ere, pertsona horien % 50,2k soilik eskuratu du lan-esperientzia esanguratsua. Proportzio hori % 71,6 da langile kualifikatuen artean, % 79,6 teknikarien artean, % 82,3 zuzendarien artean eta % 83,6 (proportziorik handiena) erdi-mailako kargudunen artean.

### 20.2. Zerbitzuetako adar batzuk

Zerbitzuen sektoreko adarrek izan dituzte, oro har, lan-esperientzia esanguratsuaren proportziorik baxuenak biztanleria landunaren barruan: % 70etik beherakoak, zehazki. Etxeko zerbitzuek eta ostalaritzak dute mailarik txikiena (% 25,4 eta % 42,6), eta bestelako merkataritza-zerbitzuek ere argi eta garbi % 65etik beherako maila dute (% 62,2). Egoera hori, zerbitzu-sektoretik kanpo, besteak beste arrantzara (% 48,6) eta janari-industriara (% 59,8) hedatzen da.

Adierazlea % 65eko langara hurbiltzen da, edo zertxobait gainditzen du enpresetarako zerbitzuetan (% 65,3), nekazaritzan (% 64), eraikuntzan (% 63,3) eta zenbait industria-adarretan (produktu ez-metalikoak eta material elektrikoa). Zenbakia oraindik % 70etik behera dago merkataritzan (% 69,3). Atalase hori zertxobait gainditzen da papergintzan

(% 70,3) eta hezkuntzan (% 70,6). Gainerako ekonomia-adarretan, maila esperientzia esanguratsua duten pertsona landunen % 75eko atalasera hurbiltzen da, edo gainditu egiten du.

### 20.3. 10 langile baino gutxiagoko establezimenduak; batez ere, 3-9 langilekoak

Zentro handietan, lan-esperientzia esanguratsua duten landunen proportzioa handiagoa izan ohi da; % 75etik gora izaten da, zehazki, 100 langile edo gehiagoko establezimenduetan. Proportzioa % 70era jaisten da 20-49 langile dituzten zentroetan, eta % 63,7-64,9 tartera 3-19 langile dituzten establezimenduetan. 1-2 langileko zentroek daukate mailarik baxuena (% 55,8).

Beraz, lan-esperientzia esanguratsu batera sarbidea ez izateko arriskua handitu egiten da establezimenduen tamaina txikitzen den heinean. Problematikak, gainera, areagotzera jo du 2011 eta 2015 artean langile bat edo biko zentroetan (adierazlea % 67,2tik % 55,8ra jaitsi da) eta 10-19 langile dituztenetan (% 72,8tik % 64,9ra).

### 20.4. Ohiko teknologiaren bitartez garatutako okupazioak

Teknologia faktore erabakigarri bat da lan-esperientzia esanguratsua lortzeko. Hartara, teknologia modernoa erabiliz lan egiten dutenen % 82,9k lan-esperientzia esanguratsua lortu du, eta teknologia konbentzionala erabiliz lan egiten dutenen kasuan, proportzio hori % 45era jaitsi da (% 46,5 2011. urtean).

### 20.5. Enpresarekin kontratu bidezko lotura-modu ezegonkorrak

Logikoa den moduan, lan-esperientzia esanguratsua eskuratzeak lotura dauka lanpostu egonkorra edukitzearekin, norberaren konturakoa nahiz kontratu mugagabe baten bidezkoa izan. Hala, kontratu mugagabea duten soldatapeko biztanleen % 79,5 lan-esperientzia esanguratsua izateagatik nabarmentzen da (% 74,7 2007an eta % 79,6 2011), eta proportzio hori % 79,5 da norberaren kontura lan egiten duten pertsonen kasuan (ehuneko hori, ordea, beherantz ari da 2015ko % 83,8aren eta 2007ko % 79,6aren aldean). Lan-esperientzia esanguratsua izan dutenen artetik, % 90,8 norberaren kontura aritzen da, edo enpresarekin kontratu mugagabea du.

Aldi baterako kontratu bat edo obra-kontratu bat duten pertsonen edo kontraturik ez dutenen artetik, ordea, proportzio handi batek ez dauka lan-esperientzia esanguratsurik: % 65,7, % 71 eta % 80,7 (% 70,4 beste egoera batean). Hala ere, kolektiboa beste egoera batean kontuan hartuta, horrelako biztanleria landuna esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen % 44,8 baino ez da (% 45,4 2007an eta % 46,4 2011n). Oraindik ere, 2015ean, zati gehiengoduna kontratu mugagabea duten edo norberaren kontura lan egiten duten pertsonei dagokie (% 41,9 eta % 13,3, hurrenez hurren).

### 20.6. Okupaziorik eza

Begi-bistakoa denez, beharrezkoa da lan egitea lan-esperientzia esanguratsua bermatzeko. Gaur egun lan egiten duten pertsonen artetik, % 69,2k dauka lan-esperientzia esanguratsua –une honetan edo iraganean eskuratua– (2007ko % 65,2aren gainetik, baina 2011ko % 70,7aren azpitik); lan egiten ez duen biztanleria aktiboaren kasuan, proportzioa % 15,9 da, eta biztanleria aktibo potentzialaren kasuan, % 9,8. Lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen % 94,1ek lana dauka gaur egun.

Hala eta guztiz ere, aurreko datuek erakusten duten moduan, gaur egun lan egiten dutenetako askok (% 30,8) ez daukate lan-esperientzia esanguratsurik. Izan ere, 2015ean, pertsona landunak lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsona aktiboen eta potentzialki aktiboen % 56 da, baina ehunekoak behera egiten du 2011ko % 62,7arekin alderatuta.

## 21. Arrisku-talde nagusiak

Lan-esperientzia esanguratsua eskuratzeko zailtasun handiena duten arrisku-taldeei dagokienez, honako hauek dira aipatu beharreko ezaugarri nagusiak –biztanleria potentzialki aktibo osorako aztertuta–:

### 21.1. Emakumezkoak, baina gizonezkoen posizioa nabarmentzen okertzearekin batera

2015ean, lan-esperientzia esanguratsu batean sarbidea izateko zailtasunak handiagoa izaten jarraitzen du emakumezko biztanleen artean: emakumeen % 45,7k ez du horrelako esperientziarik, gizonezkoen artean, berriz, % 40,1 da proportzio hori.

Hala ere, adierazlea ez da nabarmen jaisten 2011. urtearen aldean emakumeen artean (-0,4 portzentajezko puntu % 46,1aren aldean), baina gizonen bilakaera kezkagarria da, eta adierazlea % 32tik % 40,1era igotzen da 2011 eta 2015 artean, Horren ondorioz, gizonezkoen proportzioa % 44,1etik % 48,2ra igotzen da lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria potentzialki aktiboan.

Emakumeek, produkzio-sisteman lan-esperientzia esanguratsu gutxiago izateaz gain, ez-okupazio tasa handiagoa izaten jarraitzen dute biztanleria potentzialki aktiboaren barruan: izan ere, emakumeena % 20,2 da, eta gizonena, berriz, % 15,1.

### 21.2. Biztanle gazteenak

Gazteak dira lan-esperientzia esanguratsurik ez lortzeko arrisku handiena dutenak. Hauek dira era horretako esperientziarik ez dutenen proportzioak: 25 urtetik beherakoen % 95; 25-

29 urtekoen % 75,4, eta 30-34 urtekoen % 51. Proportzio horiek guztiak gorantz azaltzen dira 2011koen aldean (% 88,4, % 65,7 eta % 47,2, hurrenez hurren).

Ehunekoak, ordea, oraindik handiak dira, % 33,7 eta % 47 artekoak, 35-49 urteko biztanleen artean. Aldaketarik deigarriena 35-39 urteko pertsonen artean ikusten den igoera da, esperientzia esanguratsurik ezaren adierazlea 2011ko % 36,8tik 2015eko % 47ra aldatzen delako. Horrek adierazten du ezen, 40 urtetik behera, biztanleriaren % 45ek baino gehiagok egin behar diola aurre, adin-talde guztietan, esperientzia esanguratsua sortzen duten enplegu moduetan sartzeko arazoari.

Adierazlea soil-soilik dago esperientzia esanguratsurik ezaren % 30aren azpitik 50 urteko eta gehiagoko biztanleria potentzialki aktiboaren artean. Hala ere, okertzea deigarria da adin hauetan ere: % 20,4tik % 29,7ra 50-54 urte artean, eta % 17,5etik % 29,6ra 55 urte eta gehiago dituztenen artean.

Gazteek lan-esperientzia esanguratsu gutxiago izate hori ohikoa da gizonen nahiz emakumeen artean. 35 urtetik beherako gizon potentzialki aktiboen % 68,1ek ez dauka era horretako esperientziarik, eta emakumeen kasuan, % 67,5ek. 35 urtetik gorakoen artean, emakumeek zailtasun handiagoak izaten dituzte lan-esperientzia esanguratsua lortzeko; 35-44 urtekoen % 43,3k eta 45 urtetik gorakoen % 35,2k ez daukate era horretako esperientziarik. Gizonen kasuan, berriz, 35-44 urtekoen % 38,7 eta 45 urtetik gorakoen % 27,1 (ehunekorik baxuena) dira era horretako esperientziarik ez dutenak.

Adierazlea nabarmen okertu da 2011 eta 2015 artean, portzentajezko 10 puntu baino gehiago, gizonezko kolektibo guztietan; 45 urtetik gorako emakumeen artean, berriz, 4,3 puntuko igoera gertatu da, eta egonkortzeko joera izan da 45 urtetik beherako emakumeen artean. Prozesu horren ondorioz, gizonen eta emakumeen arteko aldea murriztu egin da; are gehiago, 35 urtetik beherako biztanleen artean, esperientzia esanguratsurik eza handiagoa da gizonen artean 2015ean (% 68,1 % 67,5en aldean; % 57,9 % 66,3ren aldean 2011n).

Ez-okupazio tasarik handienak, nolanahi ere, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonak proportzio handienean dituzten adin-taldeei dagozkie oraindik ere. Hala gertatzen da, alde batetik, 35 urtetik beherako pertsonei dagokienez: % 30,1 gizonen artean eta % 28,6 emakumeen artean (nahiz eta sexuaren araberako eraginik handienaren zentzua aldatuta, 2015ean gizonen kaltetan, eta 2011n emakumeen kaltetan —% 24,1eko ez-okupazioa gizonen % 22,6koaren aldean urte hartan—). 35 urtetik gorako emakumeen artean ere daude ez-okupazio tasa handiagoak (% 24,4 35-44 urte artean, eta % 21,6 45 urtetik gora dituztenen artean).

2015ean, ordea, 35 urtetik gorako gizonezko kolektiboetan ere da handia ez-okupazio tasa. 2011. urtearen aldean, igoera ez da gehiegizkoa 35-44 urteko gizonen artean (% 14,5etik % 16,8ra), baina askoz deigarriagoa da 45 urtetik gorako gizonen artean (% 9,8tik % 17,7ra). 35 urtetik gorako gizonezko biztanlerian, ez-okupazio tasaren aldaketak 2011-2015 laurtekoan lan-esperientzia esanguratsurik ezak daukan eragina funtsean handitzearekin batera gertatu dira.

### 21.3. Ikasketa kualifikaturik ez daukaten pertsonak, baina baita unibertsitateko adar batzuk ere

Ikasketa kualifikaturik gabeko pertsonek osatzen dute lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria potentzialki aktiboaren gehiengoa: guztiaren % 58,1 % (2011n, % 59,8; eta 2007an, % 58). Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonek % 30,3 osatzen dute; lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenek, % 16; eta erdi-mailako lanbide-heziketako titulu bat dutenek, % 11,7.

Ikasketa-maila horietan guztietan, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria-proportzioa EAEko batez bestekoa baino handiagoa da, eta, konparatiboki, oso maila handiak lortzen ditu, ez bakarrik ikasketarik gabeko pertsonen artean (% 63,5), bai eta lehen mailako ikasketak (% 52,5, 11 puntu 2011ko % 41,5aren gainetik) eta lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak dituztenen artean ere (% 53,2, 10,3 puntu 2011ko % 42,9aren gainetik).

Adierazlea, halaber, % 40tik gorakoa da lanbide-ikasketak dituzten pertsonen artean, eta nabarmen egiten du okerrera goi-mailako lanbide-heziketaren kasuan (adierazlea % 32,8tik % 40,2ra aldatzen da 2011 eta 2015 artean). Erdi-mailako lanbide-ikasketen kasuan, ordea, beheranzko ildoa ikusten da 2011. urtearen aldean (urte horretako % 48,1etik 2015eko % 42,4ra).

Aztertutako proportzioa % 40tik behera dago unibertsitate-ikasketetan, baina berriz ikusten da okerrera egiten dutela erdi-mailako hirugarren ikasketek (% 37,4 2015ean; % 34,7, berriz, 2011n). Adierazlea, ordea, goi-mailako unibertsitate-titulua duten pertsonen artean egonkortzen da (% 28,1 2011ko % 28,8aren aldean).

2007 arte ez bezala, 2015. urtean, 2011n hasitako doitze-prozesu batean, ikusten da oinarrizko korrelazioa dagoela lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzioaren eta prestakuntza-mailen araberako ez-okupazio tasaren artean.

Alde batetik, lan-esperientzia esanguratsurik eza % 50etik gorakoa duten taldeetan, ez-okupazio tasak gehienez ere % 30 dira, edo ehuneko horretatik hurbil daude, edo gainditu egiten dute, eta, 2007. urtearekin alderatuta, igoerak oso deigarriak dira. Urte horrekin konparatuta, ez-okupazio tasa portzentajezko 16 puntu handitzen da lanbidekoak ez diren

bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan (% 13tik % 29ra), 23,2 puntu lehen mailako ikasketa izanez gero (% 8,7tik % 31,8ra) eta 25,9 batere ikasketarik ez izanez gero (% 12,6tik % 38,4ra).

Lan-esperientziarik eza %40,2 eta % 42,4 artean duten taldeei dagokienez, lanbide-heziketari lotutakoen artean, ez-okupazio tasak % 20 ingurukoak dira, eta, 2007aren aldean, 11,7-12,7 puntu handitzen dira. Goi-mailako lanbide-heziketaren kasuan, tasa % 7,4tik % 20,1era handitzen da 2007 eta 2015 artean; erdi-mailako heziketaren kasuan, berriz, igoera % 8,6tik % 20,4ra artekoa da.

Itxurazko antzekotasun horren atzean, ordean, 2011 eta 2015 artean dinamika nabarmen desberdina dela ikusten da. Erdi-mailako lanbide-heziketaren kasuan, 2007 eta 2011 artean igoera azkarra gertatu ondoren % 8,6tik % 23,4ra, ez-okupazio tasak noranzkoa aldatu zuen, eta 2015ean % 20,4ra gibeleratu zen. Hala ere, igoera neurritsuagoa izan zen 2007 eta 2011 artean goi-mailako lanbide-heziketaren kasuan, % 7,4tik % 12,4ra artekoa. Kasu horretan, 2011 eta 2015 artean gertatu zen igoerarik handiena, eta ez-okupazio tasa % 20,1era iritsi zen azken urte horretan.

Erdi-mailako hirugarren ikasketen kasuan, lan-esperientzia esanguratsurik ezaren adierazlea lanbide-heziketako taldearenaren hurbilekoa da, % 37,4, baina ez-okupazio tasa nabarmen txikiagoa da (% 13,5). Hori gorabehera, 2007. urtearen aldean, igoera ere handia da, 11,5 puntukoa, 2007ko % 2tik. Heziketa-talde horretan, igoerarik handiena 2007-2011 aldikoa izan zen, eta jada 2011n % 11,2 zen.

Goi-mailako hirugarren ikasketak dituzten pertsonen kolektiboa soilik mantendu da 2007ko ez-okupazio tasetatik gehiegi urruntzen ez diren mailetan. Urte hartan, konparatiboki handia izan zen tasa (% 9,2), eta ez-okupazioa 3,6 puntu baino ez zen handitu 2015ean (% 12,8: handitze neurritsua 2011ko % 10aren aldean). Horri esker, kolektibo hori erdi-mailako hirugarren ikasketak dituzten pertsonen tasaren azpitik gelditu zen 2015ean, urte hartan gertatzen ez zen zerbait, hain zuzen ere (% 12,8 % 13,5ren aldean, 2015ean; % 9,2 % 2ren aldean 2007an).

2011n ez bezala, 2015ean ez dago ez-okupazio tasa handirik, edo batez bestekotik hurbil dagoenik, edo batez bestekoa baino handiagorik, erdi- edo goi-mailako unibertsitate-prestakuntzetan. Erdi-mailako ikasketen esparruan, Erdi-mailako beste ikasketa batzuei dagozkie tasarik handienak (% 18,3); eta goi-mailako ikasketetan, Natura Zientziei eta Medikuntzari (% 14,9). Bi tasak argi eta garbi daude EAEko batez bestekoaren azpitik (% 22,2).

Prestakuntza-mailaren eta laneratze-mailaren arteko loturaren problematikak zehatzago aztertzen baditugu, ikus dezakegun azpimarratzea komeni den problematika espezifiko batzuk daudela. Alde batetik, ikusten da konparatiboki txikiak diren ez-okupazio tasak daudela, eta horiek, halaber, lotura dutela lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzio handiarekin. Hori hala izateak adieraz lezake kontratazioari egoeraren arabera soilik heltzeko arriskua dagoela. 2015ean, egoera horretan daude ez-okupazio tasa % 15etik gertukoa edo txikiagoa duten prestakuntza-taldeak, eta, horiekin batera, badago esperientzia esanguratsurik gabeko pertsona-proportzio bat, % 30etik hurbilekoa, edo ehuneko hori baino handiagoa. Hala gertatzen da honako hauetan: erdi-mailako lanbide-heziketan (Metalgintza, Automobilgintza eta Elektrizitatea); erdi-mailako hirugarren ikasketetan (OHOko Irakasle-ikasketak eta, neurri batean, Erdi-mailako beste ikasketa batzuk, tasa, hor, % 18,3ra iritsi arren); eta goi-mailako hirugarren ikasketetan (Goi-mailako Ingeniaritzak, Zuzenbidea, Filologia eta Beste gizarte-zientzia batzuk).

Bestetik, ikus daiteke lehen mailako ikasketen ondorengo prestakuntza (bigarren mailakoa edo hirugarren mailakoa) duten kolektibo batzuek maila handi samarrak dituztela ez-okupazio tasetan (% 20 ingurukoak edo hortik gorakoak) eta lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen proportzioetan (% 40 inguruko edo hortik gorako tasak); egoera horrek adieraz dezake prestakuntzaren eta enpleguaren artean egokitzapen falta handia dagoela EAEko egungo lan-merkatuan. Nahiz eta kualifikatu gabeko ikasketa mota guztiekin gertatzen den hori nagusiki, prestakuntza kualifikatua duten taldeei ere eragiten die. Hala gertatzen da lanbide-heziketa batzuetan, bereziki administratibo eta industrial klasikoak ez diren adarretan, erdi-mailetan bezala goi-mailetan ere, baina erdi-mailako heziketako administrazio-adarrean ere bai. Azken prestakuntza mota horretan, ez-okupazio tasak gorantz jarraitu du 2007 % 10,3tik, 2015ean % 29,5era iritsi arte. Administrazio-adarreko goi-mailan, egoerak errealitate hurbila erakusten du, ez-okupazioa % 24,3 izanik 2015ean, baina lan-esperientzia esanguratsurik ezaren maila batez bestekoa (% 31) baino txikiagoa da.

Lan-munduan txertatze-maila handiena, ez-okupazio tasa % 15etik hurbil edo ehuneko horren azpitik eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzioa % 25etik hurbil edo ehuneko horren azpitik duten taldeetan honako hauek sartzen dira: industria-esparruarekin zerikusia duten goi-mailako lanbide-heziketak; erdi mailako hirugarren ikasketen esparruan, Erdi-mailako ingeniaritzak eta Erizaintza/Osasun-laguntzaile teknikoak; eta goi-mailako unibertsitate-ikasketen barruan, Natura Zientziekin/Medikuntzarekin, Ekonomiarekin eta Filosofia eta Letrekin zerikusia duten ikasketak. Adierazgarria da ikustea 2015ean Zuzenbide ikasketek talde horretakoak izateari utzi diotela; izan ere, talde horrek dinamika konparatiboki aldekoa du esperientzia esanguratsurik ezaren mailagatik, jada % 30eko atalasetik oso hurbil baitago (% 29,1).

### 21.4. Ezegonkortasunak emakumeei eta 35 urtetik beherakoei eragiten die nagusiki, ikasketa kualifikatuak izan arren

Sexua, adina eta ikasketa-maila batera kontuan hartuta, ikusten da 2015ean egoerarik larrienak zabaltzen direla biztanleria potentzialki aktiboaren barruko taldeetan, eta egoera horien ezaugarria dela ez-okupazio tasak % 20tik hurbil edo gora egotea, eta lan-esperientzia esanguratsurik ezaren proportzioa % 40tik hurbilekoa edo gorakoa izatea. 2015ean, errealitate hori dute ezaugarri, inolako salbuespenik gabe, ikasketarik gabeko pertsonek eta lehen mailako ikasketak eta lanbideko bigarren mailakoak dituztenek. Adinaren arabera, errealitate hori, oro har, bi sexuetan 35 urte baino gutxiago dituzten pertsona guztiei ere aplikatzen zaie, lortutako prestakuntza-maila gorabehera. Salbuespen bakarra hirugarren ikasketak dituzten 35 urtetik beherako emakumeak dira, talde horretan ez-okupazio tasa % 17,6 izan baitzen 2015ean.

Nahiz eta ez iritsi esperientzia esanguratsurik gabean % 40tik gorako mailetara, mailak handiak dira, % 34,5 eta % 37,3 artekoak, eta beste talde batzuek dauzkaten % 20tik gorako ez-okupazio tasekin konbinatzen dira. Erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako emakumeak dira.

Ikusitako kolektibo guztiek ezaugarri komun bat dute (35 urtetik beherako ikasketarik gabeko gizonak izan ezik): ez-okupazio tasak 10 puntutik gorako igoera izan zuen 2007 eta 2015 artean. Handitze hori 20 puntutik gorakoa da, berriz, ikasketarik gabeko pertsonen artean (aipatu salbuespenarekin), edo lehen ikasketak dituztenen artean, bai eta goi-mailako lanbide-heziketaren bat duten 35 urtetik beherako gizonen artean ere. Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten zenbait adinetako emakumeen artean, berriz, ez-okupazio tasa, 20 puntura ez iritsita ere, % 17,4-% 18,2 handitu da.

Handitzea 10-14,5 puntu artekoa da beste kolektibo batzuetan: erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo hirugarren ikasketak dituzten 35 urtetik beherako gizonezkoak edo emakumezkoak; erdi-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketa ikasi duten 35 urtetik gorako emakumeak; goi-mailako lanbide-heziketa ikasi duten 35 urtetik beherako emakumeak; eta, azkenik, lanbidekoak diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako gizonak.

Kontrako posizioan, ez-okupazioa % 10-12,5etik gertu edo behera izanik, eta esperientzia esanguratsurik gabeko kasuen proportzioa oro har % 25aren azpitik egonik, eta betiere % 30aren azpitik, unibertsitate-titulua duten 35 urtetik gorako gizonezkoak eta emakumezkoak nabarmentzen dira, bai eta erdi-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketa duten 35 urtetik gorako gizonak ere. Talde horietan, ez-okupazio tasaren igoera portzentajezko 10 puntutik behera geratu da oro har 2007 eta 2015 artean, erdi-mailako lanbide-ikasketak dituzten 35 urtetik gorako gizonen salbuespen bakarrarekin, haien kasuan tasa 12 puntu handitu baita.

Nahiz eta aurkeztutako datuek gizonen egoera emakumeena baino hobea dela adierazten jarraitzen duten, akatsa litzateke ez azpimarratzea 2007tik 2015era bitartean 35 urtetik gorako gizon-talde batzuen datuek okerrera egin dutela. Alde horretatik, gogorarazi behar da ezen, ikasketarik gabeko pertsonen salbuespen erlatiboarekin, 35 urtetik gorako gizonezko biztanleria mota guztietan ezaugarri zutela 2007. urtean kokatuta egotea lan-munduratze handieneko taldeen berezko posizioan. 2011n, estatus hori mantentzen zen ikasketa kualifikatuak (goi-mailako lanbide-heziketa edo unibertsitate-ikasketak) eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak zituzten gizonen kasuan, erdi-mailako lanbide-heziketan hurbileko posizioa izanik. 2015ean, aipatu estatusa hirugarren ikasketetara eta lanbide-heziketetara mugatzen da, eta nabarmen egin du okerrera, gainera, esperientzia esanguratsurik ezaren adierazleetan. Goi-mailako hirugarren ikasketak dituzten gizonen kolektiboa soilik mantentzen da adierazle horretan % 20aren azpitik (bestalde, 2015ean egoera horretan mantentzen den EAEko bakarra da).

Gizonezkoen posizioaren beste okertze-prozesu batzuk ere deigarriak dira. Lanbidekoak diren bigarren mailako ikasketak edo goi-mailako lanbide-heziketaren bat dituzten 35 urtetik beherako pertsonei eragiten diena da azpimarragarriena. Bi kolektibo horietan, ez-okupazio tasak 25 puntu baino gehiago igotzen dira, eta bilakaera askoz negatiboagoa da emakumezkoen artean prestakuntza mota beren artean gertatutakoa baino. Ez-okupazio tasa emakumeena baino portzentajezko 8 puntutik gora txikiagoa zen 2007an, baina 2015ean, tasa horiek handiagoak dira gizonen artean.

Emakumearen egoeraren bilakaera, ordea, ez da aldekoa, unibertsitate-ikasketak dituzten 35 urtetik gorako emakumeen salbuespen bakarrarekin. Talde horrek bi errealitate deigarri konbinatzen ditu. Alde batetik, emakume-kolektibo horretan soilik ez da handitu 10 puntutik gora ez-okupazio tasa 2007 eta 2015 artean; bestetik, bilakaerarik onena izan du talde guztietan sexua eta prestakuntza kontuan hartuta. Ez-okupazio tasa portzentajezko 3,7 puntu baino ez da handitu 2007ko % 7,1etik 2015eko % 10,8ra.

Kontrako zentzuan, azpimarragarria da goi-mailako lanbide-heziketaren bat duten 35 urtetik gorako emakumeen posizioak okerrera egin duela, talde hori 2011n, EAEn, laneratze-maila handieneko posizioetan sartu ondoren. 2011 eta 2015 artean, esperientzia esanguratsurik eza % 28,6tik % 34,5era handitu da talde horretan. Bestalde, ez-okupazio tasak, 2007 eta 2011 artean % 13,1etik % 11,4ra jaitsi ondoren, gora egin du % 26,1eraino 2015ean. Dinamika horrek lan-merkatuko posiziorik onenetatik urruntzen du emakume-talde hori.

**5.1 taula**
**Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa, kualifikazio-maila orokorraren arabera**
**(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

| | Jarduerarekiko lotura | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aktiboa | | Aktibo potentziala | | Potentzialki aktiboa | |
| **Kualifikazio-maila orokorra** | **Absolutuak** | **% bertikalak** | **Absolutuak** | **% bertikalak** | **Absolutuak** | **% bertikalak** |
| Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua | 379.077 | 34,1 | 1.931 | 6,2 | 381.009 | 33,3 |
| Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua | 53.740 | 4,8 | 0 | ,0 | 53.740 | 4,7 |
| Lan-esperientzia esanguratsua ikasketa kualifikaturik gabe | 218.137 | 19,6 | 1.134 | 3,6 | 219.271 | 19,2 |
| Ikasketa kualifikatuak lan-esperientzia esanguratsurik gabe | 193.448 | 17,4 | 12.082 | 38,6 | 205.530 | 18,0 |
| Prestakuntza osagarri esanguratsua lan-esperientzia esanguratsurik gabe | 158.938 | 14,3 | 8.283 | 26,4 | 167.221 | 14,6 |
| Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik | 109.435 | 9,8 | 7.898 | 25,2 | 117.333 | 10,3 |
| **Guztira** | **1.112.776** | **100,0** | **31.329** | **100,0** | **1.144.105** | **100,0** |

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo potentziala.

**5.2.a taula**

**Biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren bilakaera, kualifikazio-maila orokorraren arabera**

**(Datu absolutuak)**

| | Aktiboa | | | | | Potentzialki aktiboa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kualifikazio-maila orokorra** | **1999** | **2003** | **2007** | **2011** | **2015** | **2003** | **2007** | **2011** | **2015** |
| Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua | 192.732 | 246.899 | 331.891 | 377.319 | 379.077 | 247.255 | 332.354 | 377.964 | 381.009 |
| Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua | 27.797 | 32.002 | 42.864 | 46.043 | 53.740 | 32.002 | 43.743 | 46.043 | 53.740 |
| Lan-esperientzia esanguratsua ikasketa kualifikaturik gabe | 259.727 | 272.321 | 256.399 | 274.678 | 218.137 | 272.534 | 257.078 | 277.826 | 219.271 |
| Ikasketa kualifikatuak lan-esperientzia esanguratsurik gabe | 201.564 | 175.567 | 164.187 | 171.811 | 193.448 | 183.706 | 171.409 | 177.243 | 205.530 |
| Prestakuntza osagarri esanguratsua lan-esperientzia esanguratsurik gabe | 146.485 | 128.896 | 108.864 | 145.473 | 158.938 | 147.107 | 115.973 | 152.986 | 167.221 |
| Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik | 162.129 | 140.733 | 108.516 | 101.734 | 109.435 | 168.204 | 120.400 | 110.759 | 117.333 |
| **Guztira** | **990.434** | **996.418** | **1.012.720** | **1.117.059** | **1.112.776** | **1.050.807** | **1.040.958** | **1.142.821** | **1.144.105** |

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo potentziala.

**5.2.b taula**

**Biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren bilakaera, kualifikazio-maila orokorraren arabera**

**(Hazkunde-tasak, %-tan)**

| | Aktiboa | | | | | Potentzialki aktiboa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kualifikazio-maila orokorra** | **% 99-03** | **% 03-07** | **% 07-11** | **% 11-15** | **%99-11** | **% 03-07** | **% 07-11** | **% 11-15** | **%03-15** |
| Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua | 28,1 | 34,4 | 13,7 | 0,5 | 96,7 | 34,4 | 13,7 | 0,8 | 54,1 |
| Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua | 15,1 | 33,9 | 7,4 | 16,7 | 93,3 | 36,7 | 5,3 | 16,7 | 67,9 |
| Lan-esperientzia esanguratsua ikasketa kualifikaturik gabe | 4,8 | -5,8 | 7,1 | -20,6 | -16,0 | -5,7 | 8,1 | -21,1 | -19,5 |
| Ikasketa kualifikatuak lan-esperientzia esanguratsurik gabe | -12,9 | -6,5 | 4,6 | 12,6 | -4,0 | -6,7 | 3,4 | 16,0 | 11,9 |
| Prestakuntza osagarri esanguratsua lan-esperientzia esanguratsurik gabe | -12,0 | -15,5 | 33,6 | 9,3 | 8,5 | -21,2 | 31,9 | 9,3 | 13,7 |
| Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik | -13,2 | -22,9 | -6,2 | 7,6 | -32,5 | -28,4 | -8,0 | 5,9 | -30,2 |
| **Guztira** | **0,6** | **1,6** | **10,3** | **-0,4** | **12,4** | **-0,9** | **9,8** | 0,1 | 8,9 |

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo potentziala.

**5.2.c taula**

**Biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren bilakaera, kualifikazio-maila orokorraren arabera**

**(% bertikalak)**

| | Aktiboa | | | | | Potentzialki aktiboa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kualifikazio-maila orokorra** | **1999** | **2003** | **2007** | **2011** | **2015** | **2003** | **2007** | **2011** | **2015** |
| Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua | 19,5 | 24,8 | 32,8 | 33,8 | 34,1 | 23,5 | 31,9 | 33,1 | 33,3 |
| Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua | 2,8 | 3,2 | 4,2 | 4,1 | 4,8 | 3,0 | 4,2 | 4,0 | 4,7 |
| Lan-esperientzia esanguratsua ikasketa kualifikaturik gabe | 26,2 | 27,3 | 25,3 | 24,6 | 19,6 | 25,9 | 24,7 | 24,3 | 19,2 |
| Ikasketa kualifikatuak lan-esperientzia esanguratsurik gabe | 20,4 | 17,6 | 16,2 | 15,4 | 17,4 | 17,5 | 16,5 | 15,5 | 18,0 |
| Prestakuntza osagarri esanguratsua lan-esperientzia esanguratsurik gabe | 14,8 | 12,9 | 10,7 | 13,0 | 14,3 | 14,0 | 11,1 | 13,4 | 14,6 |
| Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik | 16,4 | 14,1 | 10,7 | 9,1 | 9,8 | 16,0 | 11,6 | 9,7 | 10,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo potentziala.

**5.3.a taula**
**Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera**
**(Datu absolutuak eta hazkunde-tasak, %-tan)**

| | Datu absolutuak | | | | | Hazkunde-tasak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Sexua eta adina** | **1999** | **2003** | **2007** | **2011** | **2015** | **% 99-03** | **% 03-07** | **% 07-11** | **%11-15** | **%99-15** |
| < 35 urteko gizonak | 28.474 | 40.467 | 43.698 | 44.818 | 25.605 | 42,1 | 8,0 | 2,6 | -42,9 | -10,1 |
| 35-44 urteko gizonak | 39.418 | 50.209 | 63.487 | 71.731 | 67.871 | 27,4 | 26,4 | 13,0 | -5,4 | 72,2 |
| >= 45 urteko gizonak | 46.147 | 55.813 | 78.159 | 86.636 | 94.632 | 20,9 | 40,0 | 10,8 | 9,2 | 105,1 |
| **Gizonak** | **114.039** | **146.488** | **185.344** | **203.185** | **188.108** | **28,5** | **26,5** | **9,6** | **-7,4** | **65,0** |
| < 35 urteko emakumeak | 26.890 | 34.003 | 49.838 | 46.297 | 32.658 | 26,5 | 46,6 | -7,1 | -29,5 | 21,5 |
| 35-44 urteko emakumeak | 33.366 | 41.007 | 54.665 | 61.683 | 73.573 | 22,9 | 33,3 | 12,8 | 19,3 | 120,5 |
| >= 45 urteko emakumeak | 18.437 | 25.401 | 42.045 | 66.154 | 84.738 | 37,8 | 65,5 | 57,3 | 28,1 | 359,6 |
| **Emakumeak** | **78.692** | **100.411** | **146.547** | **174.134** | **190.969** | **27,6** | **45,9** | **18,8** | **9,7** | **142,7** |
| **Guztira** | **192.732** | **246.899** | **331.891** | **377.319** | **379.077** | **28,1** | **34,4** | **13,7** | **0,5** | **96,7** |

**5.3.b taula**
**Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera**
**(% bertikalak)**

| **Sexua eta adina** | **1999** | **2003** | **2007** | **2011** | **2015** |
|---|---|---|---|---|---|
| **< 35 urteko gizonak** | 14,8 | 16,4 | 13,2 | 11,9 | 6,8 |
| 35-44 urteko gizonak | 20,5 | 20,3 | 19,1 | 19,0 | 17,9 |
| >= 45 urteko gizonak | 23,9 | 22,6 | 23,5 | 23,0 | 25,0 |
| Gizonak | **59,2** | **59,3** | **55,8** | **53,8** | **49,6** |
| **< 35 urteko emakumeak** | 14,0 | 13,8 | 15,0 | 12,3 | 8,6 |
| 35-44 urteko emakumeak | 17,3 | 16,6 | 16,5 | 16,3 | 19,4 |
| >= 45 urteko emakumeak | 9,6 | 10,3 | 12,7 | 17,5 | 22,4 |
| Emakumeak | **40,8** | **40,7** | **44,2** | **46,2** | **50,4** |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

**5.4.a taula**
**Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituzten pertsonek biztanleria aktiboan duten pisua, sexuaren eta adinaren arabera**
**(%-tan)**

| Sexua eta adina | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| < 35 urteko gizonak | 11,8 | 18,8 | 21,8 | 24,9 | 19,0 |
| 35-44 urteko gizonak | 26,0 | 31,8 | 38,4 | 39,6 | 39,6 |
| >= 45 urteko gizonak | 24,7 | 27,3 | 36,0 | 35,8 | 34,2 |
| **Gizonak** | **19,7** | **25,3** | **31,8** | **33,7** | **32,3** |
| < 35 urteko emakumeak | 12,8 | 19,2 | 30,7 | 27,4 | 24,5 |
| 35-44 urteko emakumeak | 29,6 | 33,2 | 42,2 | 39,8 | 45,5 |
| >= 45 urteko emakumeak | 20,9 | 21,5 | 30,3 | 34,8 | 36,0 |
| **Emakumeak** | **19,2** | **24,0** | **34,1** | **33,9** | **36,0** |
| **Guztira** | **19,5** | **24,8** | **32,8** | **33,8** | **34,1** |

**5.4.b taula**
**Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituzten pertsonek biztanleria potentzialki aktiboan duten pisua, sexuaren eta adinaren arabera**
**(%-tan)**

| Sexua eta adina | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|
| < 35 urteko gizonak | 18,2 | 21,3 | 24,6 | 18,6 |
| 35-44 urteko gizonak | 31,7 | 38,4 | 39,3 | 39,5 |
| >= 45 urteko gizonak | 27,1 | 35,7 | 35,8 | 34,0 |
| **Gizonak** | **25,0** | **31,5** | **33,5** | **32,0** |
| < 35 urteko emakumeak | 17,9 | 29,5 | 26,7 | 23,7 |
| 35-44 urteko emakumeak | 30,6 | 40,3 | 38,3 | 43,8 |
| >= 45 urteko emakumeak | 18,3 | 28,8 | 33,2 | 34,7 |
| **Emakumeak** | **21,7** | **32,5** | **32,6** | **34,7** |
| **Guztira** | **23,5** | **31,9** | **33,1** | **33,3** |

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo potentziala.

**5.5 taula**
**Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera**
**(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

| Jarduerarekiko lotura | | Datu absolutuak | | | | | % bertikalak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
| **Aktiboa** | Landuna | 187.992 | 242.586 | 324.243 | 362.470 | 360.716 | 97,5 | 98,3 | 97,7 | 96,1 | 95,2 |
| | Lanik ez / esperientzia bai | 4.740 | 4.313 | 7.649 | 14.849 | 18.362 | 2,5 | 1,7 | 2,3 | 3,9 | 4,8 |
| **Potentzialki aktiboa** | Landuna | | 242.586 | 324.243 | 362.470 | 360.716 | | 98,1 | 97,6 | 95,9 | 94,7 |
| | Lanik ez / esperientzia bai | | 4.669 | 8.111 | 15.493 | 20.293 | | 1,9 | 2,4 | 4,1 | 5,3 |

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo potentziala.

**5.6 taula**

**Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituzten pertsonen ez-okupazio tasa, sexuaren eta adinaren arabera (%-tan)**

**Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa**

| Lan-egoera, sexua eta adina | | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Aktiboa** | < 35 urteko gizonak | 1,8 | 2,1 | 2,3 | 4,2 | 1,8 |
| | 35-44 urteko gizonak | ,8 | ,3 | 2,1 | 3,1 | 1,8 |
| | >= 45 urteko gizonak | 1,5 | ,6 | 2,0 | 2,7 | 5,8 |
| | **Gizonak** | **1,4** | **,9** | **2,1** | **3,1** | **3,8** |
| | < 35 urteko emakumeak | 4,9 | 4,2 | 2,4 | 7,9 | 12,7 |
| | 35-44 urteko emakumeak | 4,9 | 3,2 | 4,2 | 4,0 | 4,2 |
| | >= 45 urteko emakumeak | 1,3 | 1,0 | ,5 | 3,5 | 4,7 |
| | **Emakumeak** | **4,1** | **3,0** | **2,5** | **4,9** | **5,9** |
| | **Guztira** | **2,5** | **1,7** | **2,3** | **3,9** | **4,8** |
| **Potentzialki aktiboa** | < 35 urteko gizonak | | 2,1 | 2,3 | 4,2 | 2,4 |
| | 35-44 urteko gizonak | | ,3 | 2,1 | 3,1 | 1,8 |
| | >= 45 urteko gizonak | | 1,2 | 2,4 | 3,1 | 5,8 |
| | **Gizonak** | | **1,2** | **2,3** | **3,3** | **3,9** |
| | < 35 urteko emakumeak | | 4,2 | 2,4 | 7,9 | 12,7 |
| | 35-44 urteko emakumeak | | 3,2 | 4,2 | 4,5 | 4,8 |
| | >= 45 urteko emakumeak | | 1,0 | ,8 | 3,5 | 6,2 |
| | **Emakumeak** | | **3,0** | **2,6** | **5,0** | **6,8** |
| | **Guztira** | | **1,9** | **2,4** | **4,1** | **5,3** |

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo pot.

**5.7 taula**

**Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu bidezko loturaren arabera**

**(% bertikalak)**

| | | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lanbidea** | Zuzendariak eta teknikariak | 69,4 | 60,6 | 58,4 | 55,6 | 56,2 |
| | Administrariak | 10,4 | 13,3 | 13,6 | 14,6 | 17,3 |
| | Zerbitzuetako kualifikatuak | 4,8 | 5,8 | 7,2 | 7,8 | 9,2 |
| | Bestelako kualifikatuak | 14,3 | 17,6 | 18,5 | 18,7 | 14,4 |
| | Zerbitzuetako kualifikaziorik gabeak | ,8 | 1,2 | 1,6 | 1,9 | 2,2 |
| | Bestelako kualifikaziorik gabeko langileak | ,5 | 1,5 | ,6 | 1,3 | ,7 |
| **Lanbide-kategoria** | Zuzendaritza-kideak | 9,2 | 7,1 | 5,5 | 4,0 | 7,1 |
| | Teknikariak (diplomadunak, lizentziadunak) | 45,6 | 41,5 | 42,9 | 44,5 | 45,3 |
| | Ardurad., erdi-mail. kargud. (langilebur., taldebur.) | 5,9 | 10,5 | 9,8 | 7,2 | 6,2 |
| | Kualifikatuak (2. mailako edo 1. mailako ofiziala) | 31,0 | 31,7 | 28,8 | 35,1 | 32,6 |
| | Kual. gabeak (peoia, laguntzailea, 3. mailako ofiz.) | 8,3 | 9,2 | 13,2 | 9,2 | 8,8 |
| **Kontratu bidezko lotura** | Mugagabea | 72,4 | 73,2 | 72,1 | 72,0 | 74,6 |
| | Aldi baterakoa | 5,7 | 5,3 | 6,3 | 4,7 | 5,3 |
| | Obrakoa | 2,9 | 2,4 | 2,0 | 2,9 | 4,2 |
| | Kontraturik gabe | ,2 | ,4 | ,4 | ,2 | ,1 |
| | Beste egoera bat | ,9 | ,2 | 1,2 | ,0 | ,1 |
| | Norberaren kontura | 17,9 | 18,6 | 18,0 | 20,1 | 15,7 |
| | **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

**5.8 taula**

**Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria landuna, lanbidearen, lanbide-kategoriaren eta enpresarekiko kontratu bidezko loturaren arabera**

**(Erreferentziako biztanleria landunean duen pisua, %-tan)**

| | | 1999 | 2003 | 2007 | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lanbidea** | Zuzendariak eta teknikariak | 49,3 | 57,4 | 59,5 | 66,5 | 65,0 |
| | Administrariak | 25,5 | 37,7 | 46,6 | 51,1 | 54,7 |
| | Zerbitzuetako kualifikatuak | 8,2 | 9,7 | 16,8 | 17,7 | 20,9 |
| | Bestelako kualifikatuak | 9,5 | 13,9 | 20,5 | 26,2 | 25,2 |
| | Zerbitzuetako kualifikaziorik gabeak | 2,5 | 4,2 | 7,8 | 9,3 | 9,7 |
| | Bestelako kualifikaziorik gabeko langileak | 3,0 | 9,2 | 4,9 | 11,5 | 14,4 |
| **Lanbide-kategoria** | Zuzendaritza-kideak | 32,3 | 49,6 | 40,8 | 47,6 | 52,3 |
| | Teknikariak (diplomadunak, lizentziadunak) | 64,5 | 67,5 | 70,1 | 75,6 | 75,3 |
